



AZTERKETAK 33

Hego Euskal Herriko fiskalitateari eta aurrekontuei buruzko txostena

2016ko MARTXOA

Hego Euskal Herriko fiskalitateari eta aurrekontuei buruzko txostena

Sarrera	3
A) Fiskalitatea	3
1. Europarekiko alderaketa	3
2. Zerga hitzartuak EAEn. diru-bilketa eta presio fiskala	6
3. Zergen aitorpena Nafarroan	13
4. ELAren proposamenak	18
B) Aurrekontuak	23
1. Zor publikoak baldintzaturiko aurrekontuak	23
2. Nazioarteko alderaketa	27
3. EAEko aurrekontuak	31
4. Nafarroako aurrekontuak	40
5. Nafarroako erreforma fiskala	47

SARRERA

Politika fiskala eta aurrekontu politika dira gobernuek hartuko duten bidea erakusten dutenak. Politika hauek euren erabakien atzean dagoen ideologiaren radiografia dira; ez da posible politika sozialak aurrera eramatea erabaki hauekin bat ez datozen politika fiskalik eta aurrekontu politikarik gabe.

Ez da berria esatea Gasteizko eta Iruñeako gobernuek diru-bilketan eta gastu publikoan tarte handia dutela, horrela erakusten baitu nazioarteko konparaketak.

Txosten honetan diru-bilketa aztertuko dugu, nazioarteko konparaketa eginez Hego Euskal Herria non kokatzen den jakiteko eta nork jasaten duen zergaren zama ikusteko, eta diru publikoa nola gastatzen den ere aztertuko dugu, gure gobernuen lehentasunak zein diren jakiteko.

A) FISKALITATEA

Behar dugun gizarte-politika izateko, Hego Euskal Herrian dugun zerga-sistema bidegabea aldatu beharra dago. Aldaketa horretatik urrun, fiskalitatea argudio gisa erabiltzen da murrizketak eta austeritate-politika egiteko; eta horren ondorioz, aberastasuna gero eta okerrago banatzen ari da.

Alternatiba fiskalak proposatzeko, Hego Euskal Herriko zerga-sistema aztertu beharra dago, diru-sarrerak nondik datozen, zergak nork ordaintzen dituen, zergak nola ordaintzen diren, etab. aztertze aldera.

Ez da alde batera utzi behar gizartean zerga-fiskalari buruzko eztabaida bultzatzekoo aukera, zerga-sistemak eragingo baititu gainerako politikak neurri handian.

1. Europarekiko alderaketa

Hego Euskal Herriko (HEH) fiskalitatea aztertzeke, alderaketa bat egin behar da Europar Batasuneko zerga-sistematikiko. Horrek aukera emanen baitigu jakiteko zer posizio daukagun nazioartean gure inguruan, eta aukera ere jakiteko zer tarte dugun fiskalitatearen atal bakoitzean.

Lehen atal honetan, presio fiskala izanen dugu aztergai, hau da, barne produktu gordinaren zer portzentaje biltzen duten Administrazio guztiek.

HEHrako eskura dagoen azken datua 2014koa da. Bada, datu horren arabera, presio fiskala BPGaren % 31,4 da (zerga hitzartu, udal zerga eta Gizarte Segurantzarako kotizazioen artean).

Hala ere, Europarako azken datu ezaguna 2012koa da, eta, urte hartan, 28-EBko presio fiskala, batez beste, % 39,4 izan zen. Beraz, HEHrekiko

4

aldea BPGaren 8,9 puntu da, 2012an HEHko presio fiskal osoa % 30,5 izan baitzen.

BPGaren 8,9 puntuko alde horrek hauxe esan nahi du: 2012an, HEHko presio fiskala 28-EBko batez bestekoa adinakoa izatekotan, 7.578,9 milioi euro gehiago bilduko zirela.

Gainera, 28-EB osoan, sei estatuk bakarrik dute presio fiskal txikiagoa. Hona hemen: Irlanda (% 28,7), Eslovakia (% 28,3), Errumania (% 28,3), Letonia (% 27,9), Bulgaria (% 27,9) eta Lituania (% 27,2).

Bestalde, 22 estatuk presio fiskal handiagoa dute, eta Espainiar Estatuak berak ere presio fiskal handiagoa du (% 32,5). Danimarkak du presio fiskal handiena (% 48,1); beraz, Danimarkarekiko aldea 17,6 puntu da (bestela esanda, horrek esan nahi du HEHn 14.987,4 milioi euro gehiago biltzea).

2008tik aurrera izan den bilakaera aztertzen badugu, ikusten da HEHn BPGaren 0,7 puntu galdu direla presio fiskalean (% 31,2tik % 30,5era igaro baita). Epealdi berean, 28-EBn presio fiskala batez beste nola bilakatu den ikusten badugu, ohartuko gara presio fiskala 0,2 puntu handitu dela Europan (% 39,2tik % 39,4ra).

Lurraldez lurraldeko presio fiskalaren bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusten dugu EAEko presio fiskala BPGaren % 32 izan dela 2014an. 2012an, % 30,8 izan zen, hau da, Europako batez bestekoa baina 8,6 puntu txikiagoa. Horrek esan nahi du 5.683 milioi euro gehiago bilduko ziratekeela, 28-EBn adinako presio fiskala egon izan balitz. Bilakaerak erakusten du EAEn 0,3 handitu dela presio fiskala 2008tik 2014ra.

Nafarroan, presio fiskala % 29,5 izan da 2014an, hau da, 0,1 puntu gutxiago 2012an baino. Beraz, Europako batez bestearekiko aldea BPGaren 10 puntukoa izan da. Hau da, Nafarroak Europako presio fiskalaren batez bestekoaren adinakoa izatera, 1.838 milioi euro gehiago bilduko zituen. Nafarroako presio fiskalaren bilakaerari dagokionez, 2008tik 2014ra maila berean mantendu da.

Presio fiskalaren bilakaera (% BPGa). 27-EB, 2008-2012

	2008	2009	2010	2011	2012
Danimarka	47,8	47,8	47,4	47,7	48,1
Belgika	44,2	43,4	43,8	44,2	45,4
Frantzia	43,2	42,1	42,5	43,7	45,0
Suedia	46,4	46,5	45,4	44,4	44,2
Finlandia	42,9	42,8	42,5	43,7	44,1
Italia	42,7	42,9	42,5	42,4	44,0
Austria	42,7	42,4	42,1	42,2	43,1
28-UE	39,2	38,3	38,3	38,8	39,4
Luxenburgo	37,5	39,8	38,1	38,2	39,3
Hungaria	40,3	40,1	38,1	37,3	39,2
Alemania	38,9	39,4	38,0	38,5	39,1
Holanda	39,2	38,2	38,9	38,6	39,0
Eslovenia	37,3	37,3	37,7	37,2	37,6
Kroazia	37,1	36,5	36,4	35,3	35,7
Erresuma Batua	37,1	34,3	35,0	35,8	35,4
Zipre	38,6	35,3	35,6	35,3	35,3
Txekiar Errep.	34,4	33,4	33,6	34,6	35,0
Grezia	32,1	30,5	31,7	32,4	33,7
Malta	33,0	33,4	32,2	33,0	33,6
Estonia	31,9	35,3	34,0	32,3	32,5
Polonia	34,3	31,8	31,8	32,3	32,5
Espainiar Est.	32,9	30,7	32,2	31,8	32,5
Portugal	32,8	31,0	31,5	33,2	32,4
EAE	31,7	30,2	31,0	30,5	30,8
HEH	31,2	30,2	30,6	30,4	30,5
Nafarroa	29,5	30,1	28,9	30,0	29,4
Irlanda	29,5	28,1	28,0	28,2	28,7
Eslovakia	29,1	28,7	28,1	28,6	28,3
Errumania	28,0	26,9	26,8	28,4	28,3
Letonia	29,2	26,6	27,2	27,6	27,9
Bulgaria	32,3	29,0	27,5	27,3	27,9
Lituania	30,7	30,4	28,5	27,4	27,2

*Iturriak: Eurostat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra,
Nafarroako Gobernua, IEN, Eustat, Eusko Jaurlaritza*

2. Zerga hitzartuak EAEn. diru-bilketa eta presio fiskala

2.1 EAEko diru-bilketa

EAEko zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (Foru Ogasunek kudeatzen dituztenak) 12.612,6 milioi euro izan da 2015ean; hau da, 2014an baino 292,9 milioi gehiago bildu dira; % 2,3 gehiago. 2008tik hona, diru-bilketak zer bilakaera izan duen aztertzen badugu, ikusiko dugu diru-bilketa 221,6 milioi eurotan jaitsi dela. Hau da, zerga hitzartuen diru-bilketak % 1,8 egin du behera.

Zerga hitzartuen diru-bilketa (milioika eurotan). EAE, 2008-2015

2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
12.834,2	10.792,1	11.700,0	11.480,9	11.408,2	11.752,1	12.319,8	12.612,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza

2015eko diru-bilketa zuzeneko zergetatik ala zeharkakoetatik datorren aztertzen badugu, gutxi gorabehera zati berdinetan banatua dagoela ikusiko dugu. Horrek esan nahi du antzeko pisua dutela biztanleria guztia maila berdinean zergapetzen dituzten zergek eta errenta maila kontuan hartuta zergapetzen dituztenek:

- Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa 6.538,8 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 51,8. Zeharkako zergek % 2,9 egin dute gora, 2014. urtearekin alderatuta. 2008tik hona izan den bilakaerak kontrakoa erakusten du diru-bilketa % 6,9 handitu dela.
- 2014aren aldean % 1,6 igo ondoren, zuzeneko zergek 5.958,6 milioi euroko diru-bilketa eragin dute; guztiaren % 47,2. Kasu honetan, azken urteotako bilakaerak jaitsiera nabarmena erakusten du diru-sarreretan, 2008an baino % 9,7 gutxiago bildu baita.
- Gainerako zergek eta tasek 115,3 milioi euroko diru-sarrera eragin dute; guztiaren % 0,9 alegia.

Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa
(milioika euro, % guztizkoa eta aldaketa %). EAE, 2008-2015

	Milioika euro	%	% ald. 2014	% ald. 2008
Zeharkako Z.	6.538,8	51,8	2,9	6,9
Zuzeneko Z.	5.958,6	47,2	1,6	-9,7
Gainerakoak	115,3	0,9	10,9	1,4
Guztira	12.612,6	100,0	2,4	-1,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza

Interesgarria da aztertzea nola banatua dagoen zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa:

- Laneko PFEZ bidezko diru-bilketa 4.473,9 milioi euro izan da; 2014an, baino % 1,6 gehiago. Hala ere, zuzeneko diru-bilketaren % 75,1 izan da. Laneko errenten bidezko diru-bilketa % 3,5 igo da 2008tik hona.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko errenten bidezko diru-bilketa 1.494,2 milioi euro izan da; hau da, 2014an baino % 7,3 gutxiago. Zuzeneko diru-bilketan % 25,1eko pisua izan du. PFEZaren diru-bilketak laneko errentetan izan duen bilakaeraren aldean, hone-lako errenten diru-bilketa % 34,7 jaitsi da azken urteotan. Honela osaturik egon da:
- Sozietateen gaineko Zergak 1.039,1 milioi euroko diru-bilketa eragin du; hau da, 2014an baino % 10,4 gutxiago, eta zuzeneko zergen bidezko diru-bilketaren % 17,4 izan da. 2008. urtearen aldean, % 38,6 gutxiago bildu da.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren gaineko PFEZk 455,1 milioi euroko diru-sarrerak eragin ditu; hau da, 2014an baino % 0,5 gehiago, eta zuzeneko diru-sarreraren % 7,6 da. Errenta hauek 2008an baino % 23,7 gutxiago izan dira.

Hitzarturiko zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa, zerga motaren arabera, egitura eta bilakaera. EAE, 2008-2015

	Milioika euro	%	% ald. 2014	% ald. 2008
Laneko PFEZa	4.473,9	75,1	1,6	3,5
Sozietateen Gaineko Z.	1.039,1	17,4	-10,4	-38,6
PFEZ Enpr., Prof., K	455,1	7,6	0,5	-23,7
Enpre. Prof. K. errentak	1.494,2	25,1	-7,3	-34,7
Gainerakoak	-9,5	-0,2	-93,7	-93,4
Guztira, zerga zuzenak	5.958,6	100,0	1,6	-9,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza

8

Diru-bilketa lurraldez lurralde

Lurraldez lurraldeko diru-bilketa aztertzen badugu, hau ikusiko dugu:

- Arabako Aldundiak 1.993,1 milioi euro bildu ditu; 2014an baino % 4,9 gehiago eta 2008an baino % 2 gutxiago.
- Gipuzkoako Aldundiaren diru-bilketa 4.104 milioi euro izan da; hau da, aurreko urtean baino % 4,3 gehiago eta 2008an baino % 0,6 gutxiago.
- Bizkaiko Aldundiak 6.515,5 milioi euro bildu ditu, hau da, % 0,5 gehiago aurreko urtean baino eta % 2,3 gutxiago 2008an baino.

EAEko diru-bilketa fiskala lurraldez lurralde 2008-2015
(milioika euroan eta aldaketaren %)

	Milioi euro	2014 Aldea. %	2008 aldea. %
Araba	1.993,1	4,9%	-2,0%
Gipuzkoa	4.104,0	4,3%	-0,6%
Bizkaia	6.515,5	0,5%	-2,3%
EAE	12.612,6	2,4%	-1,7%

Iturria: Eusko Jaurlaritza

2.2 EAEko presio fiskala: zerga hitzartuak

Presio fiskala lurraldez lurralde

Zerga hitzartuen bidezko presio fiskala BPGaren % 18,3 izan da 2015ean, 2014ean baino 0,1 puntu gutxiago.

Lurraldez lurralde, 2014ko presio fiskala (eskuragarri dagoen azken datua) % 19,1 izan da Bizkaian; % 17,8 Gipuzkoan eta % 17,7 Araban.

EAEko presio fiskala lurraldez lurralde. 2014 (% BPG)


	% BPG
Araba	17,7
Gipuzkoa	17,8
Bizkaia	19,1
EAE	18,4

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera aztertzeak aukera emango digu diru-bilketaren inguruan zer gertatu den jakiteko, BPGaren bilakaera kontuan hartuta.

Hurrengo grafikoan ageri da zerga hitzartuen bidezko presio fiskala 2008ko balioen azpitik dagoela EAEn; BPGaren % 18,3n, 0,1 puntu gutxiago hain zuzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi ez denik izan aldaketarik zerga-egiturari. 2008an, zeharkako zergen bidezko diru-bilketak BPGaren % 8,8 eragin zuen; zuzeneko zergen, berriz, BPGaren % 9,5 eragin zuten. 2015ean, ordea, % 9,5eraiko igo da zeharkako zergen bidezko diru-bilketak; zuzeneko zergak, berriz, BPGaren % 8,7 izatera iritsi dira.

Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera EAEn. 2008-2015 (% BPG)



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat


EAEko zerga hitzartu nagusien presio fiskala aztertzen badugu, ikusiko dugu azken urtean aldaketa bat gertatu dela; horrela, BEZa da diru gehien biltzen duen zerga (BPGaren % 7,2), PFEZaren laneko errenten gainetik. BEZak, zehazki, 2015eko BPGaren % 7,2ren baliokidea bildu du; 2014an bezala, baino 2008an baino 1,1 puntu gehiago.

PFEZaren laneko errentek BPGaren % 6,5 bildu dute; hau da, 2014an baino 0,1 puntu gutxiago, eta 2008an baino 0,4 puntu gehiago.

Sozietateen gaineko zergak kontrako bilakaera darama, 2015ean BPGaren % 1,5 bildu baitu; hau da, 0,2 puntu gutxiago aurreko urtealdian baino eta 0,9 gutxiago 2008an baino. Bilakaera horrek agerian jartzen du nola bilakatu den fiskalitatea: hots, zeharkako zergak nabarmen handitu

dira, laneko errentendako karga handitu da, eta zerga murrizketa enpre-sentzat.

Zerga nagusien presio fiskalaren bilakaera EAEn, 2008-2015 (% BPG)



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eustat

2.3 Zergaz zergako aitorpena

a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Datuen arabera, 2011. urtean (azken informazioa urte horri dagokio), PFEZean aitorturiko errentaren % 92,1 laneko errentetatik dator; aldiz, % 6,0 bakarrik dator errenta enpresarial, profesional eta artistikoetatik. Hau da, PFEZean aitortzen den ia errenta guztia laneko errentetatik dator.

Errendimenduen pisu erlatiboa PFEZean (%). EAE, 2011

Lana	Enpr., Prof., Art.	Gainerakoak
92,1	6,0	1,9

Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua

Laneko errentek, batez beste, 23.038,6 euroko errenta aitortu zuten 2011. urtealdian; hau da, jarduera ekonomikoen bidez batez beste aitortutako errenta baino 11.094,3 euro gehiago, 11.944,3 euro izan baitzen.

Azken 5 urte honetako bilakaerak erakusten du lanaren errenta aitortua 1.764,2 eurotan igo dela, batez beste; aldiz, jarduera ekonomikoen bidez batez beste aitortu den errenta 1.196,6 euro jaitsi da. Hau da, bien arteko aldea 2.960,8 eurotan handitu egin da.

PFEZean batez beste aitortu den errenta (eurotan). 2007-2011

	Lana	Jarduera Ekonomikoak	Aldea
2007	21.274,4	13.140,9	8.133,5
2008	22.502,8	12.656,0	9.846,8
2009	22.640,3	12.226,5	10.413,8
2010	22.632,4	12.109,6	10.522,8
2011	23.038,6	11.944,3	11.094,3
2007-2011	1.764,2	-1.196,6	2.960,8

Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko Zergak mekanismo asko aurreikusten ditu sozietateek azkenean ordaintzen duten zenbatekoa murrizteko. Horregatik dago hain alde handia tasa nominalaren (hasiera batean, arauak finkatzen duena) eta tasa efektiboaren (azkenean, zerga ordaintzeko erabiltzen duten tasa da) artean. Sozietateen gaineko Zergaren batez besteko tasa nominala (hainbat enpresa mota dira, eta bakoitzak tasa nominal desberdinak ditu) % 26,6 izan da, 2011n (eskura dagoen azken datua). Tasa hori, ordea, 11,7 puntutan murriztu da, salbuespenen, kenkarien, eta beste mekanismo batzuen ondorioz. Horrenbestez, EAEko sozietateek % 14,9ko tasa efektiboaren arabera ordaindu dute zerga.

Azken urte honetako bilakaerak erakusten du jaitsi egin dela hala tasa nominala nola tasa efektiboa, baina tasa nominalaren murrizketa oso arina izan da (% 26,7tik % 26,6ra); tasa efektiboaren murrizketa, aldiz, handiagoa izan da, % 16,1etik % 14,9ra. Hala ere, azken 5 urte honetako bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusten da jaitsiera are handiagoa izan dela tasa nominalan, hau da, 2,8 puntukoa (2007ko % 29,4tik 2011ko % 26,6ra); eta 2,2 puntukoa tasa efektiboan (2007ko % 17,1etik 2011ko % 19,9ra).

12

**Tasa nominalaren eta efektiboaren bilakaera
sozietateen gaineko zergan. 2007-2011 (%)**

	2007	2010	2011
Tasa nominala	29,4	26,7	26,6
Tasa efektiboa	17,1	16,1	14,9

Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua

Gogoratu beharra dago Sozietateen gaineko Zergak enpresek eta sozieta-teek izan dituzten etekinak zergapetzen dituztela; beraz, etekinik izan ez dutela edo galerak izan dituztela diotenek ez dute zerga hau ordaintzen.

Zerga honetan gertatzen den iruzurraren erakusgarri, 10 sozietatetatik ia 7k aitortzen dute galerak izan dituztela, eta zerga honi lotuta dauden enpre-sa eta sozietate guztien % 80k aitortzen dute galerak edo etekinak 6.000 eurotik beherakoak izan dituztela. Begi-bistakoa da datu horiek ez dutela errealitatea erakusten.

Aitorpen kopurua sozietateen gaineko zergan. EAE, 2011

Aitorpenaren emaitza	Aitorpen kopurua	Adierazpenen %
Negatiboa	47.321	% 68,4
0 - 6.000	6.549	% 9,5
6.000 - 60.000	8.284	% 12,0
60.000 - 300.000	4.246	% 6,1
300.000 - 600.000	1.015	% 1,5
> 600.000	1.743	% 2,5
Guztira	69.158	% 100

Iturria: Euskal Ogasunen Urteko Txosten Bateratua

3. Zerga hitzartuen fiskalitatea Nafarroan. Diru-bilketa eta presio fiskala

3.1 Nafarroako diru-bilketa

Nafarroako zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa 3.198,4 milioi euro izan da 2015ean; hau da, 2014an baino 190,9 milioi gehiago bildu dira; % 6,3 gehiago.

Diru-bilketa zuzeneko zergetatik edo zeharkakoetatik datorren diru-bilketa xeheki aztertzen badugu, hauxe ikusiko dugu:

- Zeharkako zergen bidezko diru-bilketa 1.669 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 52,2.
- Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa 1.497,3 milioi euro izan da; hau da, diru-bilketa guztiaren % 46,8.
- Gainerako diru-sarrerek (tasak, zehapenak, berandutzeak...) 32,1 milioi euroko bilketa eragin dute; guztiaren % 1.

Zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa (milioika euro, guztizkoaren % eta aldaketa %). Nafarroa, 2008-2015

	Milioika euro	%	% Ar. 2008
Zeharkako Zergak	1.669,0	52,2	29,7
Zuzeneko Zergak	1.497,3	46,8	-12,0
Gainerakoa	32,1	1	0,5
Zergak, Guztira	3.198,4	100	5,9

Iturria: Nafarroako Gobernua

Zuzeneko zergen bidezko diru-bilketa nola banatzen den aztertzen badugu, hauxe ikusiko dugu:

- Laneko PFEZ bidezko diru-bilketa 1.059,8 milioi euro izan da; hau da, zuzeneko diru-bilketaren % 70,8. Diru-sarrera horiek % 1,3 jaitsi dira, 2008koen aldean (1.046,3 milioi bildu ziren). Hau da, zuzeneko zergen bidez bildutako bi herenak baino gehiago laneko PFEZari dagozkio.
- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren errentek 352,6 milioi euroko diru-bilketa eragin dute; hau da, zuzeneko diru-bilketaren % 23,5. Errenta horien diru-bilketa % 40,9 jaitsi da, 2008tik hona. Osagaiei erreparatuta, hauxe ikusiko dugu:
 - Sozietateen gaineko Zergak 217,4 milioi euroko diru-bilketa eragin du; hau da, zuzeneko zergen % 14,5. 2008tik hona, zerga

honen diru-bilketa % 48,2 erori da (419,3 milioi biltzetik 217,4 milioi euro biltzera igaro baita).

- Enpresen, profesionalen eta kapitalaren PFEZak 135,2 milioi euroko diru-bilketa eragin du 2015ean; hau da, zuzeneko diru-bilketaren % 9. Diru-sarrera horiek % 23,8 jaitsi dira, 2008aren aldean

Zuzeneko zerga hitzartuen bidezko diru-bilketa, zerga motaren arabera, egitura eta bilakaera. Nafarroa, 2008-2015

	Milioika euro	%	% Ald.
Laneko PFEZ	1.059,8	70,8	1,3
Sozietateen Gaineko Z.	217,4	14,5	-48,2
Enpr., Prof., K. PFEZ	135,2	9,0	-23,8
Enpr., Prof., K. Errentak	352,6	23,5	-40,9
Zuzeneko zergak Guztira	1.497,3	100	-12

Iturria: Nafarroako Gobernua

3.2 Zerga hitzartuen presio fiskala


Nafarroako zerga hitzartuen presio fiskala BPGaren % 17 izan da 2015ean; hau da, ekonomiak Nafarroan eragindako 100 euro bakoitzetik 17 euro zerga hitzartuen diru-bilketara bideratu direla.

Honako grafiko honetan ageri den bezalaxe, azken urtean presio fiskala 0,6 jaitsi da eta, 2008tik hona puntu 1.

Presio fiskala handitu izana zeharkako zergeri zor zaie, azken urtean 0,3 puntutan igo baitute presio fiskala, BPGaren % 8,9ra arte; hau da, 2008an baino 2,1 puntu gehiago.

Zuzeneko zergen presio fiskala, bestalde, BPGaren % 8 izan da; hau da, 2014an baino 0,3 puntu gutxiago, eta 2008an baino puntu 1 gutxiago.

Zerga hitzartuen presio fiskalaren bilakaera Nafarroan 2008-2015 (% BPG)




Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

Zerga nagusien presio fiskalak bilakaera desberdina izan du azken urteotan: 2

BEZak BPGaren % 6,4aren presio fiskala izan du 2015ean; hau da, 2014an baino 0,4 puntu gehiago, eta 2008an baino 1,6 puntu gehiago.

- PFEZren laneko errendimenduek bere horretan dira, 2015ean % 5,6 izan baita haien pisua, hau da, 2014an baino 0,1 puntu gutxiago eta 2008an baino 0,1 gehiago.
- Sozietateen gaineko Zergak izan du jaitsierarik handiena. 2008an, BPGaren % 2,2 izan baitzen, 2015ean % 1,2 eta aurreko urteetan % 1,1 izan da.

Zerga nagusien presio fiskalaren bilakaera Nafarroan 2008-2015 (% BPG)



Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

3.3 Zergen aitorpena Nafarroan

a) PFEZ

Laneko errentak jarduera nagusi gisa aitortzen dituztenek bana beste 20.590,1 euroko errenta aitortu zuten PFEZean 2013an; enpresa jarduerak aitortzen dituztenek, aldiz, 13.226,6 euro. Hau da, laneko errenta aitortua, batez beste, 1,6 aldiz handiagoa da errenta enpresariak batez beste aitortu dutena baino. Datu horiek dagozkio PFEZean aitortzen den errendimendu nagusiari; horrenbestez, estatistika horretan ez dira sartzen osagai bat baino gehiago dituzten pertsonen errendimenduak (esate baterako, errenta enpresarialak eta lanekoak, edo profesionalak, kapitalekoak...).

PFEZean batez beste aitortu den errenta (eurotan). Nafarroa, 2008-2013

	Laneko errendimenduak	Enpresarialak
2008	21.291,7	14.946,9
2009	21.072,7	13.405,3
2010	20.812,8	13.080,3
2011	21.005,6	13.185,7
2012	20.531,5	12.758,1
2013	20.590,1	13.226,6

Iturria: Nafarroako Gobernua

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergak pertsona juridikoen jarduera ekonomikoa zergapetzen du, eta etekinak daudenean baizik ez da ordaintzen.

Zerga honek aldaketa asko izan ditu, beti enpresek ordaindu beharreko zenbatekoa murriztera bideratuak. Horrela, legea 1996an egin zenean, enpresa guztien tasa nominala % 35 izan zen, baina orain tasa nominala % 30 da urteko 10 milioi eurotik gorako negozioa duten enpresentzat; % 27, milioi bat eta 10 milioi euro arteko negozioa duten enpresentzat, eta % 20, milioi batetik beherako negozioa duten enpresentzat.

Zergen tasak (%). Sozietateen gaineko zerga. Nafarroa 1996-2013

	1996	2013
10 milioi eurotik gorako negozioa	35	30
Milioi 1 eta 10 milioi euro arteko negozioa	35	27
Milioi 1-tik beherako negozioa	35	20

Iturria: Sozietateen gaineko Zerga arautzeko 24/1996 Foru Legea

Gainera, beste figura juridiko batzuk daude tarte horietatik kanpo, hala nola aseguru-mutuak, eta lan-istripuetako mutuak, kredituko sozietate kooperatiiboak eta kutxa ruralak (% 25eko zerga tasa dute).

Era berean, tratamendu berezia dute kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, finantza izaerako inbertsio-funtsek, eta higiezinetakako inbertsio sozietateek edo funtsek, % 1eko zerga-tasa ordaintzen baitute.

Dena den, batez besteko tasa % 28,4 izan zen 2013an (argitaratu diren azken datuak), 2012tik 2,6 puntu jaitsi ondoren.

Hala ere, araudiaren diseinuak berak ahalbidetzen du enpresek azkenean tasa apalago bat egiazki ordaintzea. Horrela, 2013an, % 17 izan da, hau da, batez besteko tasa nominala baino 11,4 puntu gutxiago.

Hortaz, horrek esan nahi du Nafarroan enpresek beren etekinen % 17 ordaintzen dutela, batez beste. 2013an, zerga horren bitartez, 194,3 milioi euro bildu ziren; beraz, tasa efektiboa % 7 izan beharrean, batez besteko tasa nominalaren berbera izan balitz (% 28,4), 324,6 milioi gehiago bilduko ziratekeela.

**Batez besteko tasa eta egiazko tasa (%)
sozietateen gaineko zerga 2009-2013**

	2009	2010	2011	2012	2013
Batez besteko tasa	25,7	27,4	27,5	25,8	28,4
Egiazko tasa	14,3	15,6	15,3	14,5	17,0

Iturria: Nafarroako Gobernua

4. ELAren proposamenak

Hego Euskal Herriko fiskalitateak nagusiki bi arazo larri ekarri ditu berekin: batetik, ez dago behar adina diru-sarrera publikorik gizarte beharrak asetzeko, eta bestetik, zerga-politika bidegabekoa, eta soldatatik ez datozen errentetan dagoen iruzurrarekiko permisibitatea.

Agiri honen asmoa da ELAk zerga arloan egindako proposamenetan sakontzea. Kontua ez da orain arte egin ditugun eskariak ordeztzea, gogoe-ta berriak plazaratzea baizik. Hona hemen ELAk zer proposamen egin dituen fiskalitatean, diru-bilketa handitzeko, eta zerga-politika nahiz aberas-tasun-banaketa bidezkoagoa izateko.

4.1 Zerga iruzurraren aurkako borroka

Iruzur fiskala, nagusiki soldatatik ez datozen errentek eragindakoa, HEHko zerga-sistemaren gaitzik handiena da. Horren ondorioz:

- Ikuskaritza mailak areagotu behar dira. Hau da, soldatatik ez datozen errenta guztiak ikuskatu behar dira gehienez ere 4 urteko epean. Horretarako zenbat giza baliabide gehiago behar diren kuantifikatzea eta epe zehatzetan planifikatzea.
- Ikuskaritzaren lan metodoak aldatu behar dira:
- Ikuskaritza lanak iruzurrik larrienetara birbideratzea: enpresa eta ondare handiak, izen-mailegatzailleak, paradisu fiskalen erabilera, dirua zuritzea, BEZaren gaineko iruzurra, faktura faltsuak, etab.
- Ikerketa bultzatzea egiaztatze hutsaren aldean.
- Eginkizun teknikoak eta ikuskaritza arlokoak ez dira alderdien kontrol-pean egon behar.
- Beharrezkoa da ikusketa gehiago egitea eta, horrekin bat, nabarmen handitzea zerga administrazioa bideratzen diren ekonomia, teknika eta giza baliabideak (bereziki, iruzurraren aurka aritzen direnak), harik eta Europako herrialdeetako batez bestekoarekin parekatzeko.

- Delitu fiskala sustatzen dutenen (profesionalak, bulegoak...) jarduera zehatzea, horrelako lanak egiteari probetxurik ez ateratzeko.
- Paradisu fiskalen erabilera oztopatzea, haietan diharduten pertsonak edo entitateak zigortuz; finantza-entitateak, bereziki:
 - Haien nortasun juridikoa ez aitortuz, hemen aritzeko modurik izan ez dezaten.
 - Ekonomikoki penalizatuz zerga-karga handi baten bidez, probetxugarria ez izateko.
 - Egoitza paradisu fiskal batera eramaten duten pertsona edo sozietate guztiak egiaztatzea.
 - Ez jo kenkaritzat CDI bat (informazioa trukatzeko mekanismoa) sinatu ez duten herrialdeetatik datozen gastuak.
 - Iruzurraren aurkako bulego diziiplina-anitz bat sortzea, instituzioen artekoa, ogasunaren, zerga poliziaren eta fiskaltzaren ekintza koordinatuko duena.
- Polizia fiskala sortzea:
 - Zerga Administrazioaren mendean aritzeko eta poliziaren unitate bereziak biltzeko, Aduanak Zaintzeko Unitateak eta beste.
 - Polizia judizialaren izaera izango luke, delitu fiskalak, kontrabandoa, kapital zuriketa, ondasun altxamenduak eta dokumentu faltutasunak arlo penalean ikertzeko.
- Fiskaltza eta Auzitegiak (epaileak eta polizia judiziala) iruzurraren eta iruzur handiaren aurkako borrokan (delitu ekonomikoak, zuriketa...) espezializatzea.

4.2 Zerga itzurpenaren aurka borrokatzea

- Zerga-itzurpena oztopatzea; hau da, zerga gutxiago ordaintzea zilegi egiten duten lege-mekanismoak eragotzi behar dira. Horrelako mekanismoak, bereziki, aberats handiek eta enpresek erabiltzen dituzte, eta edozein lan errentak baino zerga gutxiago ordaintzen dute. Onartezina da legeak horrelako zerga-sistema bidegabe bati babes ematea. Horren haritik,
- Zerga ezarri behar zaie Hego Euskal Herrian ari diren edo hemen egoitza duten talde multinazionalen eta beste enpresa batzuen, beren jarduketak arrazoi fiskalengatik beste toki batera eramaten badituzte.
- Gaur egungo zerga-itzurpenerako dauden molde berrien aurka borrokatu behar da. Izan ere, errealitate berri baten ondorio dira, eta jarduketarako molde berriak eta baliabide berriak behar dira, haren aurka borrokatzeko. Esate baterako, hortxe ditugu hainbat estatutan diharduten

multinazionalak; azkenean, ahalik eta gutxiena non ordain dezaketen, hantxe ordaintzen dute.

4.3 Sozietateen gaineko zerga

- Familia ondare handiak zerga hau ordaintzetik salbuetsita uzten dituzten enpresa familiarrak edo holdingak osatu daitezzen eragozteko. Behar bezalako arauak onestea oro har ingeniarietza fiskala eragozteko.
- Sozietateen gaineko Zergaren araubide bereziak ezabatzea (SICAV, atzerriko balioak dauzkaten enpresak, kooperatibak, inbertsio funtsak eta beste).
- Pertsona bakarreko sozietateak era daitezzen eragozteko, horrelako sozietateak eratzen baitira, PFEZ ordaindu beharrean, Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko, horrela zerga gutxiago ordaintze aldera.
- Tasa nominala % 35en ezartzea
- Gutxienezko tributazio efektiboa ezartzea: % 24
- Kenkari fiskal erregresiboak mailaka ezabatzea; izan ere, zerga-sistema eta haren kontrola zaildu eta oztopatzeaz gain, kenkari horien ondorioz egungo tasa efektiboa nominalaren erdia bakarrik da.

4.4 Ondarearen gaineko Zerga

Ondarearen gaineko Zergak dirua biltzeko egiazko bitartekoa izan behar du. Izan ere, salbuetsitako minimoak altuak dira, eta tasa apalak aplikatzen dira; horren ondorioz, oso diru gutxi biltzen da. Gogoratu behar da zerga hau EAEn ezabatu aurreko azken urtean, 2007an, 180 milioi eurotik gorako bilketa eragin zuela. Baina 2012an berriro indarrean jarri zenean, 115,5 milioi bakarrik bildu dira. Nafarroan, txosten ekonomikoaren arabera, 2009an 70 milioi euro gutxiago bildu ziren, hots, zerga hori kendu zenean. 2013an, zerga horren bidez, 51,2 milioi bildu dira, berriz ere indarrean jarri ondoren.

4.5 PFEZ

Zergaren egungo egitura zerga-sistema bidegabe baten oinarri da. Horrenbestez:

- PFEZaren eskalan galdutako progresibotasuna berreskuratu behar da, hala tasei nola tarifaren tarteei dagokienean. Orain arte egindakoren kontrakoa egin behar da; hau da, errentarik apalenei tasa aplikagarria jaitsi behar zaie eta errentarik altuenena igo, oso urrun baitago duela urte batzuetako % 56tik.
- Tributazio bat ezartzea gainerako errententzat, gutxienez laneko errentena bezalakoa izango dena.

Kapitalaren errentek duten tratu pribilegiatua ezabatu behar da, Bizkaian eta Araban % 22ko tasa maximoaren arabera ordaintzen baitute; Gipuzkoan, % 23koaren arabera, eta % 19 eta % 21ekoaren arabera Nafarroan. Zergaren zerga-oinarriak bakarra izan behar du, diru-sarrera guztiek tratamendu bera izan dezaten. Kapitalaren errentei errekaratu bat ezarri beharko litzaieke.

- PFEZaren zenbatespen objektiboaren araubidearen moduluen bidezko araubidea ezabatzea, sistema horrek lege zerga gutxiago ordaintzea ahalbidetzen baitu PFEZaren tarifa aplikatuta legozkiokeenak baino.
- Era automatikoki bermatzea PFEZaren tarifaren urteko deflazioa, KPIa oinarri harturik, prezioen igoerak eragin ez dezan zerga horren igoera estali eta bidegabea.
- PFEZaren kenkariak ezabatzerantz jotzea, batez ere erregresiboenak. Tributazio hobea ezartzea sistema publikoko pentsioentzat Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeentzat (EPSV) baino, gaur egun kontrakoa gertatzen baita.
- Kapital moduan jasotako errenta irregularrei aplikatzen zaien salbuespena ezabatzea, gaur egun zati handi bat salbuespena baitute; oro har, % 40, baldin eta bi urtean baino gehiagoan eta bostean baino gutxiagoan sortzen badira, hala EAEn nola Nafarroan, edota % 50, baldin eta bost urtean baino gehiagoan sortzen badira edota erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako, Nafarroan.

4.6 Finantza sektorea

Bukatu behar da finantza sektoreari zerga arloan ere ematen zaion tratu pribilegiatua. Beraz, beharrezkoa da:

- Zerga berri bat sortzea, zorraren bidezko banku finantzaketa probetxugarria ez izateko; hau da, zerga horrek entitateen pasiboa zergapetuko luke, hau da, haien zorrak.
- Finantza jardueri buruzko zerga bat; zerga horrek tasa berezia izango luke soldata aldakorrentzat eta aparteko etekinentzat.
- Finantza transakzioetarako zerga.

4.7 Beste neurri batzuk

Tributazio gutxieneko bat ezartzea oinordetzetan eta dohaintzetan:

- Ezabatuko dira oinordetza eta dohaintza gehienek zergarik batere ez ordaintzea eragiten duten salbuespenak.

- Tasa progresibotasunez handituko da, oinordetzarik eta dohaintzarik baliotsuenek zergak hein handiagoan ordain ditzaten.

4.8 Informazioa eta gizartearen parte-hartzea

- Aldian behin, iruzur fiskalari buruzko azterlanak egitea.
- Informazio nabarmen eta zehatza eman dadila, urtealdien artean konparatzeko modukoa, zerga bakoitzari eta ikuskaritzari buruzko kudeaketan dauden parametro garrantzitsuenen inguruan.
- Prozesu parte-hartzaile bat egin beharra dago, zerga-politika definitze aldera, eta bitarteko instituzionalizatuak izan behar dira eskura, sindikatuek parte har dezaten. Zerga-erreformak egiterakoan, gizarteari kontsulta egin behar zaio, erreferenduma erabiliz.

4.9 Erabateko eskumenak zerga arloan

Gaur egun, zerga batzuk Espainiar Estatuan erabaki eta Hego Euskal Herrian kudeatzen dira, eta beste batzuk Madrilen erabaki eta bertan kudeatzen dira. ELAk zerga guztien gaineko legeak Hego Euskal Herrian egiteko eta kudeatzeko eskubidea aldarrikatzen du.

4.10 Eginkizunak aldatzea EAEn

Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea, eta Zerga Koordinaziorako Organoaren eginkizuna huts-hutsean informazioa trukatzeari eta kudeaketa egitea izan dadila.

Argia da maiatzaren 30eko 3/89 Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunen Legearen, bai Estatutuaren, bai Lurralde Historikoen Legearen eta Ekonomia Itunaren beraren interpretazioa: lege maila duten arauak egiteko ahalmena bakar-bakarrik Legebiltzarrari dago-kio, Batzar Nagusiek onartzen dutena Forua Arauak baitira.

Dena den, erreforma fiskalak Zerga Koordinaziorako Organoan hitzartu eta proposatzen dira, eta erakunde horretan ordezkaritza parekidea dute Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek. ELAk egoki ikusten du Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea.

B) AURREKONTUAK

1. Zor publikoak baldintzaturiko aurrekontuak

Iruñeako eta Gasteizko Gobernuek argi utzi dute zorra ordaintzea euren lehentasun nagusietako bat dela, nahiz eta gainontzerako partidetara zuzenduriko gastua murriztu behar izan, gero eta tarte txikiagoa geratzen baita gastu errealerako zorraren hazkundera dela eta.

1.1 Zor publikoaren hazkundera EAEn

Eusko Jaurlaritzak bere ardurapeko arloetara bidera ditzakeen baliabideei dagokienez, aurrekontuek erakusten dutena baino askoz bilakaera okerragoa izan dute, zor publikoaren ordainak egundoko igoera izan duelako.

Taulan ikus daitekeenez, zor publikorako gastuak hazkunde esponenziala izan du azken urteetan, gehitu egin baitira amortizazioa (aurretik mailerik hartutako kapitala itzultzea) zein interesak. 2009ko ekitaldiko 83,6 milioi euroak ia 14 bider gehitu dira, zorrari dagokion gastua 1.170,1 milioi euroraino putzuta. Bitartean, EAEko aurrekontua, zorraren eta AHTaren ordaina kenduz gero, beheranzko joeran dago.


Eusko Jaurlaritzaren urteko gastua zor publikoan (milioi eurotan eta guztirako gastuaren %) 2009-2016

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Amortizazioa	61,2	123,7	169,5	174,5	199,9	479,5	686	892
Interesak	22,5	74,3	143,4	190,3	213,0	245,5	226,5	278,1
Guztira	83,6	198,0	312,9	364,8	412,9	724,9	912,5	1.170,1
Zorraren % aurrekontuetan	0,8	1,9	3,1	3,7	4,5	7,4	9	11,1
Aurrekontua, ken zorra eta AHT	10.171	9.963	9.642	9.534	8.827	9.102	9.222	9.413

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra

Zein da, beraz, Eusko Jaurlaritzak benetan gastatzeko duen zenbatekoaren bilakaera, zorraren ordaina kenduta? 2009an 10.171 milioi euro izan ziren (BPGd-aren %15,3), eta 2016an 9.413 milioi izango dira (BPGd-aren %13,1), hots, 758 milioi gutxiago. Beraz, Jaurlaritzak datorren urtean bere ardurapeko arloetan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, etab.) 2009an baino 758 milioi gutxiago gastatuko du. Gastu publikoaren jaitsiera zorraren ondorioz askoz handiagoa dela (zorra bi lerroen arteko tartean islatzen da).

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa zorra aintzat hartuta eta zorra alde batera utzita (BPGd %) 2009-2016




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Horrenbestez, zorraren ordainak Jaurlaritzaren guztirako gastuan duen pisua ere asko hazi da, 2009ko %0,8tik 2016ko %11,1ra. Hots, 2016an Jaurlaritzaren gastuaren %11tik gora zor publikoa ordaintzeko erabiliko da.

Azken urteetan metatu den zorraren igoerak eragin du zor bizia (gobernuaren guztirako zorraren zenbatekoa) kontutan izateko moduko mailara iritsi dela. Zehazki, zor bizia 2009ko BPGd-aren %3,1etik 2011ko %6,44ra eta 2016ko %12,1raino iritsi da. Beraz, guztirako zorra 2016an 8.686,7 milioi euro izango da, 2011ko bikoitza, eta Jaurlaritzaren urteko gastutik gero eta gertuago.

Eusko Jaurlaritzaren zor publikoa guztira (milioi euro) eta erlatiboki (BPGarekiko) 2011-2016



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Agintarien argudiorik ohikoena izaten da azken urteetan zor publikoa hazi dela gizarte-gastua gehitu behar izan delako. Baina hori ez da egia.

1.2 Zor publikoa eta itzalpeko bidesariaren zama Nafarroako aurrekontuan

2016ko aurreproiektuan 2015eko aurrekontuan baino 147 milioi euro gehiago jaso bada ere, honek ez du esan nahi Nafarroako Gobernuak gastatzeko 147 milioi gehiago izango duenik. Benetan gastatzeko aukera txikiagoa izango da, zor publikoaren ordaina 22,6 milioi euro gehituko baita.

Nafarroako Gobernuak 2016an zorra ordaintzeko erabiliko duen zenbatekoa 459 milioi euro izango da, 2015ean baino %5,2 gehiago. Beraz, gobernuak 90 milioi gehiago jarriko du zorra ordaintzeko Eskubide Sozialetako sailean baino, ospitalen aurrekontu osorako baino 10 milioi gehiago eta unibertsitate-gastua baino 8 bider gehiago.

2010etik hona gastu hau 314,9 milioi eurotan gehitu da (144,1 milioitik 459ra), hau da, %218,5 hazi da. Horrela, zor publikoa 2010eko gastu osoaren %3,4 bazen, 2016an %11,8 izango da.

Gastu hau 2016an BPGd-aren %2,4 izango da, hots, 2015ean baino 0,1 puntu gehiago eta 2010ean baino 1,6 puntu gehiago.

Zor publikoko gastua (milioi euro) 2010-2016

2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
144,1	148,1	199,4	299,4	389,5	436,4	459,0
%0,8	%0,8	%1,1	%1,7	%2,1	%2,3	%2,4

Iturria: Nafarroako Gobernua, IEN

Ordain honen zati handi bat zorraren interesei eta honekin lotutako gastuei dagokie. Zehazki, 2016an 103,7 milioi euro gastatuko dira interesetan eta zor-gastuetan, hots, egunean 284.225 euro erabiliko dira finantza-erakunde-ei interesak eta gastuak ordaintze aldera.

Nafarroako Gobernuak herrilan handiak ordaintzeko bideetako bat "itzalpeko bidesaria" izan da, esaterako Nafarroako Ubidean edota A-21 eta A-12 autobideetan. Sistema honen arabera obra enpresa pribatu batek egin eta ordaintzen du, eta Gobernuak bere erabileragatik ordaintzen du. Horrela administrazioa epe laburrean ez da zorpetzen, baina epe luzera gastua askoz ere handiagoa da.

Itzalpeko bidesaria ordaintzeko 2016rako aurrekontua 78,5 milioi euro da, 2015an baino 5 milioi gehiago. 2010etik hona gastu hau 34,5 milioitan gehitu da (44tik 78,5ra).

Itzalpeko bidesarirako gastua (milioi euro) 2010-2016


2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
44,0	49,9	67,4	67,0	65,4	73,5	78,5

Iturria: Nafarroako Gobernua

Beraz, zor publikoaren eta itzalpeko bidesarien hazkundera medio, gainerako kontuetarako gastu publikoa gero eta urriagoa da. Hartara, 2016an gastu publikoa, zor publikoa eta itzalpeko bidesariak kenduz gero, 3.358,9 milioi euro izango da, 2010ean baino 432 milioi euro gutxiago.

Azken urteetako bilakaerak adierazten du gastu publiko erabilgarria gutxitu egin dela, ez soilik murrizketengatik, hauek izugarriak izan direlarik; haatik, gero eta diru gehiago bideratzen da zor publikoa eta itzalpeko bidesarietara. Beraz, partida hauek aurrekontuen gero eta zati handiagoa hartzen dute, eta beste gastuetarako gutxiago geratzen da.

Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria (milioi euro) 2010 - 2016



Iturria: Nafarroako Gobernua

Ondorioz, zorraren eta itzalpeko bidesariaren ordainak gero eta portzentaje handiagoa hartzen du aurrekontu osoan; 2010ean ordain hauetarako %4,7 erabiltzen bazen, 2016an dagoeneko %13,8raino iritsi da.

Guztirako gastua zor publikoan eta itzalpeko bidesarian (milioi euro) 2010-2016

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztirako aurrekontua	3.979,0	3.580,1	3.611,8	3.650,5	3.784,6	3.749,4	3.896,4
Zorra eta bidesaria, guztira	188,1	198,0	266,8	366,3	450,3	510,0	537,5
Aurrekontua, ken zorra eta bidesaria	3.790,9	3.382,1	3.345,0	3.284,2	3.334,3	3.239,4	3.358,9
Aurrekontuaren %	4,7	5,5	7,4	10,0	11,9	13,6	13,8

Iturria: Nafarroako Gobernua

2. Nazioarteko alderaketa


2.1 Gastu eskasa osasun publikoan

Inguruko herrialdeekin alderaketa egiteak, osasun publikoan egiten den gastua zenbatekoa den ikusi eta HEHko gastu maila non kokatzen den ikusteko balio digu, inguruko txikienetakoa hain zuzen. 2013. urtean EB-28ko osasun publikoko gastu maila BPGaren % 7,2koa izan da batz bestea.

Danimarka izan da osasunera errekurtsio gehien bidaltzen duena (BPGaren % 8,7a).

Beste aldetik, EAEko osasun publikoan egindako gastua europar mailan txikienetakoa izan da (soilik Polonia, Bulgaria, Errumania, Letonia, Zipre eta Suitza izan dira gastu txikiagoa izan dutenak). Zehazki, 2013an EAEn BPGaren % 5a bideratu zen osasunera, EB-28ko bataz bestea baino 2,2 puntu gutxiago, 1.457,8 milioi euro gutxiago hain zuzen.

Gastu publikoa osasunean (BPG %), 2013, 28-EB



Iturria: Eurostat, Eusko Jaurlaritza, Eustat, IEN, Nafarroako Gobernua

Nafarroan egoera antzekoa da. Soilik 6 estatuk izan dute Europa mailan gastu txikiagoa osasunean (Polonia, Bulgaria, Errumania, Letonia, Txipre eta Suitza). 2013an Nafarroak BPGaren % 4,9a bideratu zuen osasun publikora, batz bestekoa baino 2,3 puntu gutxiago. Honek suposatzen du Nafarroak EB-28ko batz bestekora iristeko 415,7 milioi euro gehiago bideratu beharke lituzkeela (891,8 milioi gastatu zirenean).

Espainiar estatuak berak osasun publikoan gastu handiagoa izatea deigarria da, BPGaren % 6a 2013an. Deigarria da ere Grezia (BPGaren %5,1) edo Portugal (BPGaren %6,7) bezalako estatuak ere osasun publikora errekurtsio gehiago bideratzea.

2.2 Europako azken-aurrenak hezkuntzara bideratzen diren baliabideetan


Hezkuntzan eginiko gastu publikoaren alderaketak, inguruko herrialdeekiko dagoen defizita agerian uzten du. 2013an 28-EBeko batz besteko gastua BPGaren %5ekoa izan zen, HEHan eginiko gastutik oso urrun.

Hain zuzen, 2013an EAEn BPGaren 3,7 puntu bideratu ziren hezkuntzara, Europako batz bestea baino BPGaren 1,3 puntu gutxiago. Izan ere, 28-EBeko gastu maila bera izateko Eusko Jaurlaritzak 841,9 milioi euro gehiago bideratu beharko lituzke hezkuntzara.

Nafarroan egoera antzekoa da. 2013an BPGaren % 3,1a bideratu da hezkuntzara, Europako batz bestekoa baino 1,9 puntu gutxiago. Kasu honetan, Europako mailara iristeko 343,4 milioi euro gehiago bideratu beharko lituzke Nafarroako Gobernuak hezkuntzara.

Izan ere, EAEko eta Nafarroako hezkuntzako gastu maila oso baxua da, Espainiar Estatuarena baino baxuagoa (BPGaren % 4). Europa mailan bigarren gastu maila baxuena dugu, soilik Errumaniak bideratzen baititu baliabide gutxiago (BPGaren % 2,8), eta Bulgaria, Grezia edo Hungaria bezalako estatuak baino gastu txikiagoa dugu.

Gastu publikoa hezkuntzan (BPG %), 2013, 28-EB



Iturria: Eurostat, Eusko Jaurlaritza, Eustat, IEN, Nafarroako Gobernua

3. EAEko aurrekontuak

3.1 Fiskalitate politika aldatzeari uko egin eta politika neoliberalak onartzea

Eusko Jaurlaritzaren 2016rako aurrekontu-proiektua aurrez hartutako bi erabaki politikok baldintzatzen dute: batetik, hiru Foru-Aldundiek eta Jaurlaritzak (guztiak ere EAJren esku) Finantzen Euskal Kontseiluan (FEK) erabakitako diru-bilketa aurreikuspenak, eta bestetik, Jaurlaritzak Rajoyren Gobernuarekin defizit publikoari buruz sinatu duen akordioa, zeinaren arabera hura 2016an %0,3raino jaitsiko den.

FEKen akordioaren arabera, EAEn 13.498 milioi euro bilduko direla aurreikusten da datorren urtean. Diru hau administrazio guztien artean banatu behar da. Bilduko den diruari buruzko aurreikuspen hau oso urria da, eta horrenbestez, murrizketa testuinguru batean azken urteetako aurrekontu-politika berak aplikatzera zigortzen gaitu.

Gainera, aurreikuspen hauekin berariaz baztertzen da bestelako zerga-politika bat egiteko aukera. Baliabide publikoak ez dira zerutik jausten; aitzitik, zerga arloan hartzen diren erabakien arabera izan ohi dira. Hain zuzen, EAEko zerga-politikak egundoko iruzur fiskal maila egotea ahalbidetzen du eta zerga gutxi ordainarazten die errenta altuei, enpresei eta kapitalari; honek baliabide publikoen mailari kalte egiten dio eta erregimen fiskal injustua iraunarazten du. Europar Batasuneko azken postuetan gaude zerga-presioari dagokionez, eta honek eragin zuzena du hainbat arlotako gastu urrian, esaterako osasuna, hezkuntza, gizarte-prestazioak, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, etab.

3.2 Gastu publikoak ekonomian duen zama murriztu egin da

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektuak 10.582,8 milioi euroko gastua aurreikusten du (kopuru hau lortzen da aurrekontutako 10.933 milioi eurori Jaurlaritzak abiadura handiko trena eraikitzeak aurreratzen dituen 350,5 milioiak kenduta; zenbateko hau espainiar Gobernuak aurrerago itzuliko baitu).

Zenbateko hau BPGd-aren %14,8 da, hots, Jaurlaritzak egingo duen gastua 2016an Euskal Autonomia Erkidegoan guztira sortuko den 100 eurotik 15era ez da iritsiko. Gastua BPGd-arekin alderatzeak aukera ematen digu Jaurlaritzaren gastuak ekonomiarekiko zein bilakaera duen aztertzeko; beraz, oso interesgarria da gobernuak gastu publikoan egiten duen ahalegina neurtzeko.

Azken urteetan Eusko Jaurlaritzak gastu publikoari buruz hartutako erabakia murriztea izan da. Krisi ekonomikoaren azken urteei erreparatuz gero, exekutiboak gastu publikoa gutxitu egin du, krisiaren aitzakiarekin. Zehazki, gastu publikoa 2009an BPGd-aren %15,5 izatetik 2016an %14,8raino jaitsi da. Honek zer esan nahi du? Jaurlaritzak 500 milioi gutxiago gastatuko

dituela, 2009an egin zuen ahaleginari eusteko jarri beharko lukeen kopuruaren aldean.

**Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa
(milioi eurotan eta BPGd %) 2009-2016 (*)**

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Miloi euro	10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.240,1	9.826,7	10.134,5	10.582,8
BPGd %	15,5	15,0	14,6	14,8	14,0	14,7	14,7	14,8

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

(*) Kopuru homogeneotan: AHTra bideratutakoa kenduta; 2011tik hona, enplegu-politika aktiboak kendu beharko lirateke, zeinei buruz ez dugun informaziorik.

Gainera, 2015 eta 2016 bitartean gehikuntza izanagatik ere, nabarmentzekoa da 2015rako onartu zen aurrekontuak BPGd-aren %15eko gastua aurreikusi zuela, hots, 10.288,4 milioi euro, eta kopuru hau 154 milioi inguru murriztu dela (BPGd-aren 3 hamarren).

2015erako aurreikusitako defizitaren likidazioa bera ere 39,3 milioi euro da, ezarritako diziiplina fiskalak BPGd-aren %0,7ko defizita (48,3 milioi euro) hartzeko aukera ematen duen arren; hau da, Eusko Jaurlaritzak aurten 9 milioi euro gehiago gasta dezake, baina ziurrenik ez du egingo, bere iparra politika neoliberala izanik.

3.3 Diru-sarrera urriagoak, beharrian soziala handiagoa den arren


Ikusi dugunez, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez da gehitu gizarte-gastua handiagoa delako (izatez, hau murriztu egin da). Zorra hazteko benetako arrazoia izan da foru-ogasunek biltzen duten diru kopurua asko jaitsi dela, aplikatu duten zerga-politika injustuaren ondorioz.

2008ko ekitaldian bildu zen diru kopurua mantendu balitz (%19,02), 2016ra bitartean 7.371,6 milioi euro gehiago izango ziren. Halere, egindako zerga-jaitsierak medio, Eusko Jaurlaritzaren zorra itxuragabe puztu da eta orain, ordaindu behar delarik, gobernuak gizarte-gastua murrizten du. 2014-2016 ekitaldietarako bilduko den diru kopurua 2008ko sarreraren parera iristen ari den arren, Eusko Jaurlaritza dagoeneko zorraren zurrumbiloan murgildu da.

Itundutako zergekin bildutako diru kopuru absolutua (milioi eurotan) eta erlatiboa (BPGd-aren portzentajea); bada, ateratzen den ondorioa da EAEko itundutako zergekin bildutako kopurua 2008 eta 2009 bitartean zeharo murriztu zela (%15,9, hots, BPGd-arekiko 2,3 puntu gutxiago); hortik aurrera bere onera etortzen hasi zen, apurka baina ez modu jarraituan: 2010eko gorakada handiaren ostean, 2012ra bitartean jaitsiera izan zen; urte horretatik aurrera bildu den guztirako diru kopurua eta efektiboa hazi egin da, eta

2015ean hurbildu egin da 2008an izandako mailara. Haatik, itundutako zer-gen presio fiskala (%18,84) oraindik ere 2008koa baino txikiagoa da (%19,02), zeharkako zergetan (BEZ, hidrokarburoak, etab.) behin eta berriz izan diren igoerak gorabehera.

**EAEn zerga itunduen bidez lorturiko diru-sarrerak guztira
(milioi euro) eta BPGarekiko (%) 2008-2016 (*)**



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Finantzen Euskal Kontseilua

(*) 2015 eta 2016ko datuak aurrikuspenak dira.

Gainera, biltzen den dirua gero eta gehiago kontsumotik eta lan-errentetatik ateratzen da; aldiz, enpresetatik gero eta gutxiago biltzen da. Hots, langile-klaseak ematen du gehien ongizate-estatua elikatzeko diru-sarreretara, eta ekarpen hau hazkorra da. Aitzitik, enpresek eta kapital-errentek askoz ekarpen txikiagoa egiten dute, eta hau beherantz doa; PFEZaren ekarpena 2014 eta 2016 bitartean bi hamarren gehitu dela, eta BEZarena, berriz, 1,1 puntu; aldiz, jaitsi egin dira sozietateen gaineko zerga (7 hamarren), fabrikazio eta elektrizitatearen gaineko zerga bereziak (3 hamarren) eta gainerako zergak (3 hamarren). Azpimarratzekoa da zerga bereziekin bildutako sarrerarik handienak hidrokarburoetatik datozela (2015eko kopuruaren %61,5 eta 2016koen %62,2); honek ere langile-klaseari zama leporatzen dioelarik.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak bere 2016ko aurrekontu-proiektuan jaso dituen balioespenen arabera, datorren urtean EAEko Foru-Ogasunen sarreraren %75,8 PFEZ eta BEZetik etorriko dira, eta %8,7 baino ez Sozietateen gaineko Zergatik.

**Zerga itunduen pisu portzentuala
EAE-ko diru-bilketan 2014-2016 (*)**

(guztirako kopuruaren %)	2014	2015	2016
PFEZ	35,6	36,3	35,8
BEZ	38,9	39,6	40,0
Sozietateen gaineko Z.	9,4	8,7	8,7
Fabrikazio eta elektrizitate Z.B.	10,9	10,7	10,6
Besteak	5,2	4,7	4,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza

* 2015 eta 2016ko datuak aurreikuspenak dira;
2014koek, berriz, benetan bildutako zenbatekoa adierazten du.

Gainera, 2016rako aurreikusitako gastu fiskala 6.015 milioi euro da (2015ean baino 430 milioi gehiago); ondorioz, bildu litekeen diru-kopuru potentzialaren %31,2 ez da ogasun publikoen kutxetan jasoko.

Ondoren ikusiko dugunez, aldi berean gertatu dira zor publikoaren gehikuntza eta hainbat arlotako gastuan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza) egin diren murrizketa handiak. Hots, Eusko Jaurlaritzaren zorra ez da gizarte-gastu handiagoaren ondorio izan (kontrara gertatu da), baizik zerga-politika injustu eta zilegitasun gabekoarena.

3.4 Osasuneko gastua murrizten da

Eusko Jaurlaritzak aurreikusi du 2016an osasungintzara 3.416 milioi euro bideratuko dituela, BPGd-aren %4,8, hots, 2009an baino 92,7 milioi gutxiago. Arlo honetarako 2009ko aberastasunaren portzentaje bera baliatuko balitz (BPGd-aren %5,3), 2016ko osasungintzako aurrekontua 377 milioi euro handiagoa litzateke.

**Eusko Jaurlaritzaren osasungintzako gastu publikoa
(milioi euro eta BPGd %) 2009-2016**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.300,0	3.342,4	3.406,8	3.416,2
%5,3	%5,2	%5,0	%5,0	%5,0	%5,0	%4,9	%4,8

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Alabaina, egia da 2015eko aurrekontuaren likidazio aurreikuspenaren araberak hasierako proiektukoak baino 16,3 milioi euro gehiago gastatzeko asmoa dagoela, baino gastua eskasa da halere.

3.5 Hezkuntzako gastu eskasa

2016ko aurrekontuetan hezkuntzarako jaso den gastua 2.602,7 milioi euro izango da, BPGd-aren %3,6 alegia; ondorioz:

- Gastua BPGd-ko 0,7 puntu txikiagoa da, 450 milioi gutxiago. Partida hau kopuru absolututan 221,7 milioi euro gutxitu da 2009tik hona.
- 2015eko itxiera aurreikuspenaren aldean, 2016rako aurrekontuan 20,5 milioi euro eta BPGd-aren 0,2 puntu gutxiago jaso dira.
- 2015erako onartu zen aurrekontuak 2.561,8 milioi euroko gastua aurreikusten zuen, hots, BPGd-aren %3,7 gutxiago; likidazio aurreikuspenean, aldiz, kopuru hau 61,4 milioi eurotan gehitu da, baina honek ez du Europa mailan dugun kokapen negargarria hobetuko.

**Eusko Jaurlaritzaren gastua hezkuntzan
(milioi euro eta BPGd %) 2009-2016 (*)**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.625,1	2.462,1	2.578,1	2.623,2	2.602,7
%4,3	%4,1	%4,0	%3,9	%3,7	%3,9	%3,8	%3,6

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

() 2013ko ekitaldian Hezkuntza Sailaren egitura aldatu egin zen, bere barne hartu baitzuen Hizkuntz-Politika eta Kultura. Seriearen bilakaera homogeneoa aztertu ahal izateko, ekitaldi hauetarako sail horiei zegozkien partidak kendu dira.*


Hezkuntzako gastu publikoaren beheranzko joerak areagotu egiten du Europar dugun defizita. 2013ko ekitaldian EB28an batez beste BPGd-aren %5 bideratu zen hezkuntzako gastu publikora, hots, EAEn baino 1,3 puntu gehiago. EB28ko ahalegin bera eginez gero, Eusko Jaurlaritzak egindako

gastua baino 841,9 milioi gehiago jarri beharko zituzkeen. Honekiko ere deigarria da orain arte espainiar Estatuan (BPGd-aren %4) EAEko administrazioak baino gastu handiagoa izatea hezkuntzan (2013ko ekitaldian 181,1 milioi euro gehiago lirateke). Hezkuntzaren finantzazio publikoari dagokionez BPGd-ko zatiaren arabera atzetik hasita bigarren lurraldea da EAE; atzean Errumania besterik ez dago, eta gailendu egiten dira Bulgaria, Grezia edota Hungaria.

Eusko Jaurlaritzaren hezkuntzarako gastua tarte guztietan jaitsi dela:

- Haur- eta lehen-hezkuntzarako 903 milioi euro jarriko dira, BPGd-aren %1,26, hau da, 2009ko ekitaldiarekiko 286,8 milioi euro gutxiago.
- Aurrekontu-proiektuak 933,7 milioi euro aurreikusi ditu bigarren hezkuntzarako eta Lanbide Heziketarako (LH), hots, BPGd-aren %1,3, edota 2009an baino 142 milioi euro gutxiago.
- Unibertsitate mailako heziketarako aurrekontua 310,9 milioi euro dira, hots, BPGd-aren %0,43, edota zazpi urte lehenago baino 87,7 milioi euro gutxiago.

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa hezkuntza mailaka (BPGaren %) 2009-2016



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

3.6 Etxebizitzako gastua, gainbehera

Etxebizitza sailak 108,9 milioi euroko aurrekontua du, 2009tik hona izan duen txikienetakoa (izan ere, azken hirurtekoan izan dira epealdiko kopururik txikienak). 2009ko kopurua erdira jaitsi da, orduko BPGd-aren %0,33tik

2016ko %0,15eraino, edota 126,1 milioi euro gutxiago. Beraz, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzan egin zuen ahaleginari eutsi balio, sail honen gastua orain 235 milioi eurotan legoke.

**Eusko Jaurlaritzaren gastua etxebizitzan
(milioi euro eta BPGd %) 2009-2016**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
217,4	182,6	123,0	146,2	125,65	107,1	102,5	108,9
%0,33	%0,27	%0,18	%0,22	%0,19	%0,16	%0,15	%0,15

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat

**3.7 Euskara sustatzeko diru gutxiago,
eta aurreikusitako zenbatekoak behin ere ez dira agortu**

Euskara, gure herriko hizkuntza, ez dagoenez normalizatuta eta herritar guztiek ezagutzen ez dutelako desabantaila egoera argian dago. Bada, euskara sustatzeko partida ere ez da salbuespena eta murrizten ari dira: 2016an 104,4 milioi euroko gastua aurreikusten da, hots, BPGd-aren %0,146.

2009ko aurrekontuetan 123,7 milioi jarri ziren (BPGd-aren %0,187), baina ordutik hona euskararen sustapenerako zenbatekoak zeharo urritu dira: urtero-urtero, partida honetarako kopuruak EAEn sortutako balioarekiko pisua galdu du.

Bestalde, arazo bakarra ez da aurrekontuetako partida honek aberastasunean gero eta zati txikiagoa izatea; gainera, aurreikusitako funtsak ez dira agortzen. Hau gertatzen da borondate politikorik ez dagoelako, edo beste beharrian batzuei lehentasuna ematen zaielako... Kontua da 2009 eta 2014 bitartean hizkuntza sustatzeko baliabideetatik %76,5 baino ez direla erabili; gainerako %23,5a beste arlo batzuetara desbideratu delarik.

3.8 Gizarteratze eta kontziliazio gutxiago

2014ko Beharrian Sozialen Inkestak adierazten du EAEn pobrezia asko gehitu dela. Esaterako, benetako ongizaterik ez duten pertsonak 2014an 248.000 lirateke, hots, 2008an baino %41 gehiago, edota biztanleriaren %11,5.

Inkesta berak adierazten du pobrezian jausteko arriskua duen biztanleria, prestazioen sistemara sarbiderik gabea, gehitu egin dela. Honek agerian uzten du gero eta behartsu gehiago dagoela gizarte-babeseko sistematik baztertuta.

Zer egiten du Eusko Jaurlaritzak drama sozial honen aurrean? 2016ko aurrekontu-proiektuan honakoa jasotzen da:

- Aurten ere prestazio ekonomiko guztiak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) barne, %7 murriztuta mantenduko ditu.
- Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetara (GLL) 22 milioi euro bideratuko dira; honela 2015eko kopuru bera mantenduko da, beharizan sozialak handiagoak badira ere. Erabaki hau aldatu ezean, GLLetarako aurrekontua 7/8 hilabeteren buruan agortuko da, eta ondoren sortzen diren beharrak ez dira aintzat hartuko.
- DBE eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriko 461 milioi euro bideratu dira aurrekontu-proiektuan.

Agerikoa da gizarte-prestazioen zenbatekoa hobetu beharra dagoela, eta aintzat hartu behar direla gaur prestazio horiek jaso ezinik geratzen diren kolektiboak.

Kontziliaziorako laguntzetarako zenbatekoa ere %7 murriztu da, eta esku-bidea ez denez, kobratzerakoan berandutze handiak gertatu dira, aurrekontua txikiegia delako. 2016rako aurrekontu-proiektuak zenbatekoari eutsi egiten dio, partida hauetara 31,2 milioi euro bideratzen baititu, 2015eko kopuru berbera.

Honelako erabakiekin zer uzten du Eusko Jaurlaritzak agerian? Bere kontziliazio-politika diskurtso hutsa dela, aurrekontuan ez baitu benetan babesten. Bestalde, haurrak eta adineko jendea zaintzeko estaldurarik ere ez dagoela kontutan izanik, egoera benetan iluna da.

3.9 AHT, murrizten ez den bakarra

2016ko ekitaldirako AHTra bideratuko den kopurua 350,5 milioi euro dira; Eusko Jaurlaritzak diru hori azpiegitura eraikitze aurreratu egingo du, baina espainiar gobernuak aurrerago itzuli egingo dio. Zenbatekoa BPGd-aren %0,49 da, hots, 2009 urtearekiko 273,3 milioi euro gehiago. Beraz, AHT salbuespena litzateke gai guztietan ezarritako murrizketei dagokienez.

**Eusko Jaurlaritzaren eta espainiar gobernuaren gastua
AHT eraikitze (milioi euro eta BPGd %). 2009-2016**

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Gastua AHT	71,5	187,1	247,4	376,8	362,3	226,9	232,4	350,5
BPGd %	0,11	0,28	0,36	0,56	0,55	0,34	0,34	0,49

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

3.10 Ondorioak

2009 eta 2016ko ekitaldien bitartean Eusko Jaurlaritzaren gastua zor publikoan 1.086,5 milioi euro hazi da. Epealdi berean, osasungintzan (92,7 milioi), hezkuntzan (221,4 milioi) eta etxebizitzan (108,5 milioi) egindako murrizketak guztira 422,6 milioi euro izan dira. Halaber, gizarte-prestazio guztien zenbatekoa %7 jaitsi da. Datuek agerian uzten dute Jaurlaritzak saldu nahi duen gezurra, hots, ez dela murrizketarik ezartzen. Bai, ezartzen dira, eta gainera osasun- zein hezkuntza-sistema publikoaren kalitatearen kaltetan, eta pobrezia zein babes gabezia soziala hedatzen ari dira.

Zorra horrela gehitu ez balitz, 1.086,5 milioi euro horiei esker ez zen murrizketarik egin behar izango, eta areago, gizarte-estaldurak hobetzeko aukera izango zatekeen.

Eusko Jaurlaritzaren zorra baliabide publikoak urritu izanaren ondorio da, eta hau aplikatu den zerga-politika injustuaren fruitu da:

- Ogasunen sarrerak azken urteetan erori egin dira, iruzur fiskala ontzat eman duen zerga-politika ezarri delako; politika honek pribilegiozko tratu injustua eman die errenta altuei, enpresen eta kapitalaren errentei.
- Foru Ogasunek 2016an 6.015 milioi euro gutxiago bilduko dute gastu fiskalen ondorioz; honek esan nahi du zerga-arintze, salbuespen eta antzekoak aplikatuko ez balira (hauen progresibotasuna zalantzazkoa delarik) Ogasun publikoek gastu fiskalagatik jasotzen ez den %31,2 hori lortuko lukete.

Beraz, baliabide publikoen gabezia, gizarte-gastuan ezarritako gastuak bezala, hautu politiko baten ondorio dira, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko Foru Aldundiek egin duten hautua.

Posizio politiko hau are larriagoa da egungoaren moduko egoera ekonomikoan, zeinetan presio fiskal eta gizarte-gastu handiagoa inoiz baino premiazkoagoak diren.

Horrenbestez, ezinbestekoa da aurrekontu- eta zerga-politika goitik behera aldatzea. Gero eta ageriago ari da geratzen zorraren zilegitasunari eta bera itzultzeari buruzko hausnarketa beharrezkoa dela.

4. Nafarroako aurrekontuak

4.1 Aurrekontuak erabakitzeko ahalmenari uko egiten zaio

Nafarroako Gobernuaren 2016ko aurrekontu-proiektua baldintzatuta dago aurrez Yolanda Barcinak Rajoyrekin hitzartu zuen defizit mugagatik (BPGd-aren %0,3 2016rako).

Itxuraz Nafarroako Gobernu berriak erabaki du UPNren politika berari eustea. Ondorioz, aurrekontu-politika propioa egiteko aukera baztertzan ari dira; ez dira defizit publikoaren muga bezalako kontuak zalantzan jartzen. Izatez ontzat ematen da gizarte-gastua behar beste gehitzea ahalbidetuko ez duen aurrekontu-politika bat.

4.2 Gastu publikoa, ekonomiaren hazkundearen azpitik

2016ko Aurrekontu Aurreproiektuak 3.896,4 milioi euroko gastua aurreikus-ten du (Abiadura Handiko Trenera bideratzen den milioi bete euro kenduta, teoriaran Madrilgo Gobernuak itzuliko baitu; ondorioz, Nafarroako Go-bernuarentzat ez da gastu erreala izango).

Gastuaren bilakaera eurotan aztertuz gero, 2016ko aurrekontuan 2015ean baino 147 milioi gehiago gastatzea aurreikusten du (aurten 3.749,4 milioi euro ziren), hots, %3,9 gehiago, eta 2014an gauzatu zen 3.784,6 milioi euro baino 111,8 milioi gehiago (%2,9).

Haatik, 2016ko aurrekontu aurreproiektuak ez ditu azken urteetako murrizketak konpentsatzen, 2010ean egindako gastuaren azpitik geratzen baita. Urte hartan 77,8 milioi euro gehiago gastatu zen.

Nafarroako gobernuaren gastua (*) (milioi euro)

2010	2011	2012	2013	2014	2015**	2016**
3.974,2	3.656,3	3.611,8	3.650,5	3.784,6	3.749,4	3.896,4

Iturriak: Nafarroako Gobernuak, IEN

(*) AHTrako zuzkidurak ekitaldi guztietan kendu egin dira, Estatuak itzultzen omen dituen zenbatekoak izanik; horrenbestez, ez dira gastu erreala exekutibo nafarrarentzat.

2010 eta 2011ko ekitaldietarako ere gastuan sartu ziren gastu fiskalak kendu dira; hauek ez dira benetako gastuak, Gobernuak azkenean bildu ez zituen zuzkidurak baizik.

(**) 2015 eta 2016ko datuak aurrekontu orokorretik eta Nafarroako aurrekontuen aurreproiektutik datoz, hurrenez hurren.


2016rako aurreikusitako gastuak ekonomian BPGd-aren %20,1eko pisua du. Honek esan nahi du 2016an iaz baino BPGd-ko %0,2 gehiago gastatuko dela (37,6 milioi euro). Aitzitik, bilakaera hau 2014an izandako gastuarekin alderatuz gero, BPGd-ko 0,6 puntu gutxiago gastatuko dela aurreikusten da (hots, 116 milioi). Jaitsiera are handiagoa da 2010eko ekitaldiko Gobernuaren aurrekontua (BPGd-aren %21,5) 2016koarekin erkatuz gero (BPGd-aren %20,1). Zehazki, Nafarroako aurrekontuak BPGd-aren 1,4 puntu galdu ditu urteotan. Galera hau 270,8 milioi euro dira; hots, 2016an 270,8 milioi gehiago gastatu beharko lirateke 2010eko gastuaren parera iristeko.

Nafarroako gobernuaren gastua (*) (%/BPGd)

2010	2011	2012	2013	2014	2015**	2016**
21,5	19,4	19,7	20,2	20,7	19,9	20,1

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

BPGd-aren bilakaera (milioi Euro)



Iturria: IEN

4.3 Gastua departamentuka

Aurrekontuaren zatirik handiena Ogasun eta Finantza Politika departamentuari dagokio, 1.068,1 milioi euroekin (aurrekontuaren %27,4). Alabaina, aipatu beharra dago Departamentu honen aurrekontuan sartzen direla zor publikoaren ordaina (459 milioi), zein Estatuari egin beharreko ekarpena

(515,6 milioi). Beraz, Departamentu honen gastu erreala, partida horiek kenduta, 93,5 milioi euro da; beraz, atzetik hasita hirugarren departamentua da gastuaren arabera.

Bestalde, Osasun Departamentura 987 milioi euro bideratuko dira (%25,3), eta Hezkuntzara 600,8 milioi (%15,4).

Zenbatekorik urriena duen Departamentua Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetakoa da (15,1 milioi, %0,4), eta gero Kultura, Kirola eta Gazteriarena (41,9 milioi, %1,1).

Aipagarria da ere Garapen Ekonomikorako Departamentuaren kasua (189,5 milioi), bere aurrekontuan sartzen baita itzalpeko bidesariaren ordaina (78,5 milioi); ondorioz, Departamentu honen gastu erreala 111 milioi eurokoa izango da.

Gastua departamentuka (milioi euro, guztiaren % BPGd)

	Aurrek.Proi.	%	% BPGd
Lehendakaritza, F. Publikoa, Barnea eta Justizia	287,8	7,4	1,5
Ogasuna eta Finantza Politika	1.068,1	27,4	5,5
Hezkuntza	600,8	15,4	3,1
Osasuna	987,0	25,3	5,1
Landa Garapena, Ingurumena, Toki Admin.	321,7	8,3	1,7
Garapen Ekonomikoa	189,5	4,9	1,0
Eskubide Sozialak	368,9	9,5	1,9
Kultura, Kirola eta Gazteria	41,9	1,1	0,2
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harrem.	15,1	0,4	0,1
Nafarroako Kontseilua	446,3	0,0	0,0
Parlamentua	16,2	0,4	0,1
Guztira (AHT Gabe)	3.896,4	100,0	20,1

Iturria: Nafarroako Gobernua

4.4 Osasuneko gastua

2016ko Aurrekontu Aurreproiektuak 987 milioi euroko gastua aurreikusten du, hots, 2015ean aurreikusitakoa baino 52,6 milioi gehiago. Hau BPGd-aren %5,1 da, 2015ean baino 0,1 puntu gehiago.

Halere, 2010etik hona izandako bilakaerak adierazten du osasun publikorako gastuak berebiziko jaitsiera izan duela. 2016rako aurreikusitako gastua 2010ean egindako gastua baino 49,1 milioi euro gutxiago da (orduan 1.036,1 milioi izan ziren), hots, %4,7 murriztu da. Gainera, egindako gastua BPGd-arekin erkatuta, aldea are handiagoa da. 2010ean osasuneko gastua BPGd-aren %5,6 zen, 2016rako aurreikusia baino 0,5 puntu gehiago. BPGd-

aren 0,5 puntuko alde honek esan nahi du 96,7 milioi euro gehiago erabili beharko liratekeela 2016an 2010ean egin zen gastuarekin parekatzeko.

Osasuneko gastua (milioi eurotan, % BPGd) 2010-2016

2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
1.036,1	951,1	941,4	891,8	917,5	934,4	987,0
%5,6	%5,1	%5,1	%4,9	%5,0	%5,0	%5,1

Iturria: Nafarroako Gobernua

4.5 Hezkuntzako gastu publikoa

2016an 600,8 milioi euroko gastua aurreikusi da hezkuntzarako, 2015erako aurreikusitakoa baino 25,7 milioi gehiago (575,1 milioi). 2010etik honako bilakaerari erreparatuz gero, aldiz, murrizketa handia izan dela ikusten da. 2016rako gastua 2010ean egindako gastua baino 67,3 milioi euro txikiagoa da; hau da, azken urteetan %10,1 jaitsi da.

Hezkuntzako gastu publikoa (milioi eurotan, % BPGd) 2010-2016

2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
1.036,1	951,1	941,4	891,8	917,5	934,4	987,0
%3,6	%3,4	%3,0	%3,1	%3,1	%3,1	%3,1

Iturria: Nafarroako Gobernua

BPGd-arekiko gastua aztertuz gero, 2016ko aurrekontua %3,1 adina da, azken urteen parekoa alegia. Halere, 2010etik hona hezkuntzak BPGd-ko 0,5 puntu galdu ditu. 2016an 2010eko aberastasunaren zati berbera mantenduta 96,7 milioi euro gehiago gastatuko litzateke.

Hezkuntzako aurrekontuaren zati handi bat irakaskuntza pribatua diruz laguntzeko da. Zehazki 600,8 milioietatik 126,1 (%21) honetara bideratuko dira. Bilakaerak adierazten du, gainera, gero eta diru gehiago bideratzen dela sare pribatura. Zehazki, 2010 eta 2016 bitartean gastua 4,5 milioi eurotan hazi da (121,6tik 126,1ra). Berez ez da igoera handia, baina bestela ikus daiteke kontutan izanik hezkuntzako gastua guztira 67,3 milioi murriztu dela. Hau da, 2010ean hezkuntzako gastua, irakaskuntza pribaturako dirulaguntzak kenduta, 546,5 milioi euro ziren, eta 2016an, 474,7 milioi (71,8 milioi euro gutxiago, %13,1 alegia).

4.6 Etxebizitzako gastu publikoa

Etxebizitzako politika Eskubide Sozialen departamentuan kudeatzen da, zeinak 42,6 milioi euro bideratuko dituen lurzoru eta etxebizitzarako. Atal honetan sartzen dira etxebizitzaren inguruko jardunbideetarako dirulaguntza eta subsidioetarako partidak (25,5 milioi euro), baita etxebizitzaren alokairu publikorako dirulaguntzak ere (13 milioi), 38,5 milioi euro guztira.

Azken urteetako bilakaerak adierazten du etxebizitzako gastua urtez urte gainbehera doala. 2015ean bi partida hauetako gastua 1,4 milioi handiagoa zen, eta 22,2 milioi handiagoa 2010ean (beraz, %36,6 galdu da bitarte horretan).

Halere, aipatu beharra dago errentamendurako partida urteotan gehitu egin dela (1,9 milioi, azken urtean, eta 7,6 milioi 2010etik hona), baina alokairurako gastua oraindik ere oso urria da (Nafarroako aurrekontu osoaren %0,3).

Etxebizitzako jardunbideetarako gastu publikoa
(milioi euro, % BPGd) 2010-2016

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Etxebizitza errentan hartzen dutenentzako dirulaguntzak	5,4	5,0	9,6	10,4	12,3	11,1	13,0
Etxebizitzaren inguruko jardunbideetarako dirulaguntza eta subsidioak	55,2	53,8	68,1	33,6	36,0	28,8	25,5
Etxebizitzako jardunbideak guztira	60,7	58,8	77,7	44,0	48,3	39,9	38,5
% BPGd	0,33	0,31	0,42	0,24	0,26	0,21	0,20

Iturriak: Nafarroako Gobernua, IEN

4.7 AHT

AHTrako gastu publikoak 2016rako sekulako mozketak jasango du: 2015ean aurreikusitako 47,9 milioitik 2016ko milioi 1era pasako da. Horrela, 2010etik hona AHTra bideratutako gastu metatua 120,6 milioi euro izango da.

AHTrako gastu publikoa (milioi euro) 2010-2016

2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
5,1	1,4	17,1	29,2	19,0	47,9	1,0

Iturria: Nafarroako Gobernua

Baina murrizketa hau ez da inola ere AHTa alde batera uzteko erabaki politiko baten ondorioa. Arrazoi ekonomiko hutsek eragin dute. Castejon eta Iruñea bitarteko lanak geldituagatik, Etxabakoitz inguruko proiektuari eutsiko zaio; bertan aurreikusi da AHTaren geltoki berria eraikitzea.

Penagarria da ikuspuntu ekonomikotik azpiegitura jasangaitza dela frogatu den arren (ikuspuntu sozialetik alferrikakoa eta ingurumenerako kaltegarria izateaz gainera), Nafarroak behar ez duen proiektu bat bizirik mantentzea.

4.8 Enplegu politikak

Nafarroan enplegu politikak erakunde autonomo batek kudeatzen ditu, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak.

Erakunde honen eginkizun nagusietako bat da enplegurako prestakuntzako partidak kudeatzea; hau bi partidatan banatzen da, batik bat langabeei zuzendutako formaziokoa eta batez ere lanean ari direnentzako.

2016rako aurreikusi da langabeak trebatzeko 3,8 milioi euroko gastua, eta 1,5 milioikoa okupatuak prestatzeko. Lanean ari direnen formazioko partidatik 2014tik hona izugarrizko zati bat kendu da (6,8 milioitik 1,5 milioira pasa da, %77,9 gutxiago).

Enplegurako prestakuntzako partidak (milioi euro), 2014-2016

	2016	2015	2014
Batik bat langabeentzako prestakuntza	3,8	3,5	3,0
Batik bat okupatuentzako prestakuntza	1,5	1,8	6,8

Iturria: Nafarroako Gobernua

Halere, langile okupatuentzako prestakuntzak izan duen jaitsiera ez da aurrekontu murrizketaren ondorioa; gertatu dena da 2015ean partida hau hornitzen zuten funtsak beste sail batzutara bideratu zirela.

Estatuak enplegurako prestakuntzaren funts gehienak finantzatzen ditu, eredu estatala aplikatzeko baldintzapean.

Estatu guztian 2009tik hona soilik Nafarroan bideratu da diru gehiago langile okupatuen prestakuntzara langabeen prestakuntzara baino, izan ere, lehentasunez langile okupatuak prestatzeko ziren dirulaguntza deialdian bakar-bakarrik CENek, UGTk eta CCOOk hartu baitzezaketen parte (lehiaketa murriztua); aitzitik, batik bat langabeei zuzendutako deialdia prestakuntza zentro eta erakunde guztiei irekita zegoen.

2012an zeharo murriztu zuen Estatutak enplegurako prestakuntza. Ordutik hona, Nafarroak bere funtsekin osatu du murrizketa horren zati bat (3,5 bat milioi 2014an), betiere diru gehiago jartzen zuelarik lehentasunez langile okupatuentzako prestakuntzarako (2014an formazio mota honetara bideratu zen diru publikoaren %92,3 CENek, UGTk eta CCOOk eskuratu zuten).

Haatik, Estatuak egindako arau aldaketa medio (martxoaren 22ko 4/2015 Errege-Dekretua), enplegurako lanbide heziketako dirulaguntza guztiak derrigor lehiaketa irekian esleitu behar dira; beraz, dirulaguntza hauek lortzeko lehian edonork har dezake parte.

Hain zuzen horregatik murriztu zen 2015ean lehentasunez langile okupatuak prestatzeko formaziorako funtsak jasotzen dituen partida, kopuru horiek NEZek aipatutako hiru erakundeekin itxitako aldebiko hitzarmenetara bideratu baitziren, UPNko Gobernuak zegokion aurrekontu-aldaketa egin ondoren.

Agerikoa da hitzarmen hauen azken xedea CEN, UGT eta CCOO finantzatzea dela, eta 2015ean indarrean sartu zen araudi estatala saihesteko asmoa zutela (4/2015 Errege-Dekretua).

2015ean NEZek aldebiko hitzarmen ugari (30 inguru) sinatu ditu, eta horien artean bi eratakoak nabarmentzen dira: enplegarritasun-ibilbideak egitekoak, eta trebatze-ibilbideak egitekoak. Hitzarmenok berriak dira, eta aurreko urteetan sinatzen ari ziren gainerakoekin batera, 10 milioitik gorako gastua eragiten dute.

2016ko aurrekontu aurreproiektuak oraindik ere CEN, UGT eta CCOOkiko aldebiko hitzarmenetarako partidak jaso ditu, besteak beste "enplegarritasun ibilbide"etarakoak eta "trebatze ibilbide"etarakoak, gutxira 5,3 milioi euroko aurrekontuarekin (hitzarmen guztien artean).

4.9 Ondorioak

2010 eta 2016ko ekitaldien artean Nafarroako Gobernuaren gastua zor publikoan eta itzalpeko bidesarian 349,4 milioi euro gehitu da. Epealdi be-

rean, 138,6 milioiko murrizketak egin ditu osasunean (49,1 milioi), hezkuntzan (67,3 milioi) eta etxebizitzan (22,2 milioi). Datu hauek agerian uzten dute osasun eta hezkuntza sistema publikoetako kalitateak okerrera egin duela, bide batez pobrezia eta babes gabezia soziala areagotzen ari direlarik.

Zorra horrela hazi izan ez balitz, 349,4 milioi horiekin murrizketa guztiak ekiditeko modurik izango zen, eta gizarte-estaldurak hobetzeko aukera ere izan zitekeen.

Nafarroako Gobernuaren zorra sortu da baliabide publikoak urritu egin direlako, aplikatutako zerga-politika injustuaren ondorioz:

- Diru-sarrerak azken urteetan zerga-politika jakin baten ondorioz erori dira: politika horrek iruzur fiskala ontzat eman eta pribilegiozko tratua eskaini die errenta altuei, enpresei eta kapitalari.
- Nafarroako Gobernuak plazaratu duen erreforma fiskal proposamenak ez du egoera hau aldatuko (erreforma honekin 2016an 44 milioi euro gehiago biltzea espero du, baina europar batez besteko mailaren parean jartzeko 1.800 milioi euro beharko lirateke).

Bestalde, 2016ko aurrekontu aurreproiektuak mantendu egin ditu 5 milioitik gora CEN, UGT eta CCOOekin aldebiko hitzarmenak egiteko; hauen xede nagusia erakundeon finantzazioa da. Penagarria da “aldaketaren Gobernu” delako honek pribilegio horien jarraipena diru publikoz ordaintzea; baliabide hauek enplegurako prestakuntzara eta enplegu-politika publikoetara bideratu beharko lirateke.

ELAren iritziz ezinbestekoa da aurrekontu- eta zerga-politika erroten aldatzea. Gero eta premia handiagoa dago zorraren zilegitasunari eta bera itzultzeari buruzko gogoetarena.

5. Nafarroako erreforma fiskala

ELAk betidanik esan izan du gizarte-politika egokiak garatzeko eta desberdintasunaren aurkako borrokan aurrera egiteko zerga-politika goitik behera aldatu beharra dagoela.

Hala esan zuen sindikatuak Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta I-Ek Nafarroako Gobernurako akordio programatikoa sinatu zutenean; orduan kargu hartu zien agiri horren edukia ez zelako, inola ere, nahikoa. ELAren arabera, “Zerga-politikan akordioak bidezko fiskalitatea izateko aukera alboratu egiten du, baita dauden beharrian sozialei aurre egiteko Nafarroako Gobernuak behar besteko diru-sarrerak izan ditzan ere”. “Zerga-politika aldatu ezean, hots, fiskalitate justua izatea eta biltzen den diru kopurua gehitzea ezinezkoa bada (oinarritzat hartuta iruzur fiskalaren jazarpena eta enpresek, errenta altuek eta kapitalak ordaintzen dituzten zergen igoera) ezinezkoa da gizarte-gastura bideratutako aurrekontua behar bezala gehitzea”.

Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalak, aipatutako lau alderdiek hitzartua, Akordio Programatikoa arau bihurtzen du eta, horrenbestez, ez du zerga-politikan funtsezko aldaketarik ekarriko.

1. Erreforma fiskalaren puntu nagusiak

Nafarroako Gobernua sostengatzen duten partiduek onartutako erreforma fiskalak 2016an diru-sarrerak 44,2 milioi gehitzea aurreikusten du, eta 2017an 83 milioi. Horretarako aldaketak egingo ditu PFEZean, Ondarearen gaineko Zergetan, Sozietateen gaineko Zergan eta Hidrokarburoen Zergan.

Erreforma fiskalaren eragina diru-bilketan (milioi euro)

	2016	2017
PFEZ	27,2	45,3
Ondarearen Zerga	0	14,4
Sozietateen gaineko Zerga	2,8	23,2
Hidrokarburoen Zerga	14,2	Zehaztu Gabe
Guztira	44,2	83

Iturria: Nafarroako Gobernua

Erreforma fiskalak aldatzen duen zerga bakoitzean honako erabakiak ezarri nahi ditu:

· PFEZ

Hartutako neurriak:

Tasa orokorra 0,5 eta 4 puntu bitartean handitzea, 32.000 eurotik gorako tarteetan; hortik beherako tarteetan aplikatu beharreko tasa mantentzen da, gutxieneko tasa marjinala %13 eta gehienezkoa %52 izango direlarik.

**Oinarri likidagarriaren arabeko tarteen
PFEZ-eko tasa marjinala (%)**

Aurreko erregulazioa		Erreforma		Tasen a. aldea
Likidazio oinarria	Tasa	Likidazio oinarria	Tasa	Tasa
	13		13	0
3.940	22	4.000	22	0
8.755	25	9.000	25	0
18.050	28	19.000	28	0
31.730	36	32.000	3,5	0,5
46.850	40	46.000	41,5	1,5
55.010	42	60.000	44	2
90.640	45	80.000	47	2
125.000	46	125.000	49	3

Iturria: Nafarroako Gobernua

Aurrezki-errentei aplikatu beharreko tasen aldaketa. Lau tarte proposatzen dira, %19tik %25erainokoak:

Aurrezki-errentei aplikatu beharreko tasak (%)

Aurreko erregulazioa	
Likidazio oinarria	Tasa (%)
<6.000	19
6.000,01	21
18.000,01	23
Erreforma	
Likidazio oinarria	Tasa (%)
<6.000	19
6.000,01	21
10.000,01	23
15.000,01	25

Iturria: Nafarroako Gobernua

- Hainbat kenketa aldatu egingo dira (lana, etxebizitza, etab.); oro har kenketa gutxiago izango da.

Balorazioa:

Tarifa handiagoa ordainduko dute 32.000 eurotik gorako errentek. Gehienezko tasa (%52) bere garaian Nafarroan indarrean izan zen gehie-

nezko tasatik hurbil badago ere (%53), tarifaren progresibitatea askoz txikiagoa da.

PFEZean oraindik pribilegiozko tratua ematen zaie aurrezki-errentei, tarifa orokorretik kanpo baitaude, nahiz eta 10.000 eurotik gorako errentei tarifa pixka bat gehitzen zaien.

Kenketei dagokienez, oro har gutxiago izango dira. Oinarritik kuotara pasatzea (zeinak progresibitate handiagoa eragingo duen) kenketa-tarte apal batetik abiatuta izango da. Beraz, 18.000 eurotik gorako likidazio-oinarria duten herritar guztiek zerga gehiago ordainduko dute, eta gutxiago, berriz, 9.000 eurotik beherako oinarria dutenek.

· Ondarearen zerga

· Neurriak:

Ezarri beharreko tasen tarifa mantentzen da.

Salbuetsitako gutxienekoa 800.000 eurotik 550.000 eurora jaitsiko da, baita zergapetzeko atalasea, 1,5 milioitik milioi 1era.

Ezkutu fiskala %75etik %65era jaitsiko da (hau da, kuotaren murrizketa %65ekoa izango da, ez orain arteko %75, PFEZ eta Ondarearen Zergagatik ordaindutakoa PFEZaren oinarri ezargarriaren %65 baino handiagoa bada).

· Balorazioa:

2017an zerga honekin 14,4 milioi gehiago bilduko dela aurreikusten da. Dena dela, zerga honekin 2014an 47,8 milioi euro bildu zen, eta 2015an kopurua aurreko urtekoa baino are txikiagoa da oraingoz. Bestalde, 2009an zerga hau kendu zenean kalkulatu zen 70 milioi euro gutxiago bilduko zirela. Beraz, agerian geratzen da Ondarean Zergaren erreforma honekin ez direla azken urteetan egindako jaitsierak ere berdintzen.

· Sozietateen gaineko zerga

· Neurriak:

10 milioitik beherako negozio-bolumena duten enpresentzat mantendu egingo da zergaren tasa nominala, eta %25etik %28ra igoko da 10 milioitik gorakoentzat.

Sozietateen gainaeko zergaren tasak (%)

	Aurreko erregulazioa		Erreforma	
	Tasa	Gutxienekoa	Tasa	Gutxienekoa
10 milioitik gorako negozioa	25	10	28	13
1 eta 10 milioi arteko negozioa	23	10	23	13
Milioi 1etik beherako negozioa	19	10	19	13

Iturria: Nafarroako Gobernua

Hainbat kenketa aldatu egingo dira, esate baterako enpleguari eta inbertsioari buruzkoa edota Energia Elektroaren Produkzioaren Balioaren gaineko zergari dagokiona.

Ezarriko den gutxieneko zerga-maila %13koa izango da (lehenago %10), baina enpresek hori baino gutxiago ordain dezakete I+G+igatiko kenketari esker; horrek esan nahi du gutxieneko mailarik ez dagoela.

SICAVek %1eko zergaren ordeztasa orokorra ordainduko dute.

· Balorazioa:

Zerga honekin biltzen dena 26 milioi euro gehitzea aurreikusten da (2,8 2016an eta 23,2, 2017an). Zerga honekin 2014an 205,4 milioi bildu ziren, 2010etik hona bildu izan den antzeko kopurua alegia; halere, 2008an zerga honekin 419,3 milioi sartu ziren ogasunaren kutxetan.

Zerga honetan tarte handia dago, azken urteetako erreformek zeharo murriztu baitute.

Nafarroako Gobernuak proposatzen duen erreforma hau oso urrun dago arestian Nafarroan indarrean izan den zerga mailatik. Orain tasa orokorra 3 puntu gehitzeko asmoa dute (%28raino) 10 milioi eurotik gorako negozioa duten enpresei (gainerako enpresei %23 eta %19an mantenduko zaie), baina zerga honek bere garaian %35eko tasa orokorra izan zuen.

Bestalde, gutxieneko zergapetze maila %13an ezarri nahi da, baina argi dago gutxieneko hori ez dela beteko, I+G+igatiko kenketaren ondorioz gutxiago ordaindu ahal izango baitute. Besteak beste, SICAVak tasa orokorraren arabera ordaintzea proposatzen da.

Zerga honek ezartzen duen presioa erabaki ona da, baina begibistakoa da oso urrats txikia egin dela, dagoen tarte ikusirik; ondorioz, guztiz motz geratu da.

· Hidrokarburoen zerga

· Neurriak:

2016rako Hidrokarburoen gaineko Zergan tasa autonomikoa ezartzen da, eta hau gero garraiolari eta gidari profesionalei itzuli egingo zaie.

Hidrokarburoen gaineko zergaren tasak (%)

Erabilera orokorrerako hidrokarburoak	2,4 zentimo litroko
Berogailuirako hidrokarburoak	0,6 zentimo litroko
Fuel-oil	0,1 zentimo litroko

Iturria: Nafarroako Gobernua

- Balorazioa:

Zerga honen erreformaren bitartez 2016an 14,2 milioi euro gehiago bildu nahi dira (2017ekoa oraindik aztertzen ari dira).

Zeharkako zerga bidez (ordaintzen dituenaren egoera aintzat hartzen ez dutenak) biltzen den diru kopurua gehitzea progresibitate fiskalaren aurka doa; gainera, berogailuetarako hidrokarburoen prezioa ere gehitu egiten da.

Aldaketa honekin hidrokarburoen kontsumoa murriztu nahi bada, beste energiaren bat sustatzeko politikak ere behar dira; izan ere, bestela zeharkako zergapetzea haztea da lortzen den helburu bakarra.

2. Erreforma fiskalari buruzko ondorioak

- Nafarroan onartutako erreforma fiskala ez da inola ere nahikoa. Erreformak ez du benetako aldaketarik ekarriko azken urteetan Nafarroak pairatu duen zerga-politikarekiko; aldaketa sinboliko bat besterik ez dakar.

Agerikoa da erreforma fiskal honekin ezarriko den aldaketak bilduko den diru kopuruan ez duela eragin handirik izango.

- Erreformaren arabera, 2016an biltzekoa den diru kopurua 44,2 milioi gehitzea da helburua; honekin %1,5 haziko litzateke (2014ko azken datuekiko; orduan 3.007,6 milioi euro bildu ziren).
- Kontutan izan behar da Nafarroan ezarri zen azken erreforma fiskalarekin (PSNk proposatu eta UPN zein PPren botoekin aurrera atera zena) 2015 eta 2016an 103,2 milioi euro gutxiago bilduko zirela aurreikusitako zen. Nafarroako Gobernua sostengatzen duten taldeek orain plazaratu duten erreforma fiskalak ia ez du galera hori estaltzen.
- Erreforma honekin zerga-politika injustua mantentzen da. Egungo eredu fiskalean zerga-presiorik handiena lan-errentek jasaten dute, eta pribilegiozko tratua ematen zaie errenta altuei, enpresa- eta kapital-errentei.

Gobernu berriak parada ezin hobe du Nafarroan hainbeste murrizketa eta desberdintasun sozial eragin duen zerga-politikarekin hautsi eta berria egiteko.

- Erreforma fiskal honekin ezinezkoa izango da gizarte-gastua gehitzeko aurrekontuetan egin behar den igoerari aurre egitea. Erreforma honen ondorioa da Nafarroako Gobernuaren sarrerak aurrerantzean ere urriegiak izango direla eta, ondorioz, erabakiko den aurrekontu-politikak mantendu egingo ditu partida sozialetako murrizketak (kasurik hoberenean, litekeena baita areagotzea).
- Dagoen tarteaz ez da inola ere baliatzen- Gogoratu beharra dago Nafarroan presio fiskala Europar Batasuneko batez besteko mailaren azpitik dagoela, 10 puntu beherago. EBko batez besteko mailara iritsiz gero Nafarroan 1.800 milioi gehiago bilduko lirateke. Proposatzen den erreformak ez du alde horren %3 ere osatzen.
- Ontzat ematen dira Nafarroaren aurrekontuak egiteko ahalmenari ezarritako mugak- Gobernu berriak uko egiten dio bere aurrekontu-politika egiteko ahalmenari.

Orain arte Nafarroako Gobernuak uko egin dio eskumen horri, Madrilek ezarritako defizit maila onartu baitu, zeinak (erabat) baldintzatzen duen gastu-muga; estatuak beste autonomia-erkidegoei inposatzen dien defizit muga hitzartu izan du (%0,7 2015erako eta %0,3, 2016rako).

Gobernu berriak erabaki du politika honi eutsi egingo diola; horrela baztertu egiten du diru-bilketa gehitzeko zerga-politika bat egiteko aukera. Izan ere, zenbait baldintza zalantzan jartzen ez badira, esaterako zorraren ordaina eta defizit publikoaren muga, ontzat ematen da, izatez, gizarte-gastua behar beste gehitzeko ezina ekarriko duen aurrekontu-politika bat.

- Gobernua sostengatzen duten indarren ardura politikoa. ELAren ustez deigarria da Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta I-Ek erabaki izana azken urteetan Nafarroan indarrean izan den zerga-politikan funtsezko aldaketarik ez egitea. Aldaketa sozialak oso bestelako zerga-politika eskatzen du, ez erreforma honetan taxutu dena.
- Iruzur fiskala ez da aipatzen- Baliabide pertsonal eta material gehiago behar dira iruzur fiskalean dagoen utzikeria amai dadin. Ezin da onartu kontu hau aipatu ere ez egitea Nafarroako Gobernuak emandako informazioan.
- Parte hartzea- Gobernu berriak erreforma fiskala erabaki duenerako ez da parte hartze sozialik izan. Areago, aurreko gobernuaren aldean atzera egin du, aurreproiektua ez baitu Ekonomia eta Gizarte Kontseilura (EGK) igorri, bera kontsultatzeko. Jokabide hau kezgarria da, eta jarraipena ematen dio erabakien jakinarazpena besterik ez zen betiko politikari; erabakiei buruzko iritzia ematea besterik ez da geratzen.

ELAk aldarrikatzen du herritarrek parte hartzeko eskubidea dutela funtsezko gaietan, esaterako fiskalitatean. Kultura demokratiko berri bat sustatu behar da, zeinetan erakunde sozial eta sindikalek benetako parte hartzea izango duten bizitza politikoan.

Horretarako Nafarroako Gobernuak informazio gehiago eman behar du, baita ahalegin pedagogikoa egin ere. Hain zuzen, sindikatu honek ohartarazi nahi du erreforma fiskalak erabaki aurretik kalkuluak egiten direla diru-bilketan izango duten eraginari buruz, baina sekula ez da memoria ekonomikoarik egiten erreformak indarrean izan den artean izan duen zinezko eragina neurtzeko. Horregatik, orain erreforma honek bilketan izan dezakeen eragina gorabehera, beharrezkoa da gauzatzen denean balantzeak egitea eta izan duen emaitzaren berri ematea. Bestalde, parte hartzea gardentasunarekin lotuta dago. Agiri publikoak eskuratzeko aukera bermatu eta erraztu behar da, horrek ematen baitu Gobernuaren jarduera ezagutzeko aukera.